

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko azaroaren 24a · 389 zenbakia



Herri politikan eragin nahian

Herritar talde batek sorturiko Orain Herri Plataformak sei urte bete ditu. Luze aritu gara herri politikaz Jose Angel Iparragirre zinegotziarekin.

8
Mahai bueltan
Maider Sukia

11
Akuilua hartuta
Libe Garmendia

13
Erreportajea
Zabor bilketa sistema

17
Adarretatik helduta
Meltxor Artetxe

ERASOEN
AURREAN
ZER?

SEXU ERASOEN AURKAKO PROTOKOLOA

Erasoren bat ikusten baduzu, erasotua zaren joko eta
laguntza behar duen galdetu aurrena

EZ badio,
ez tematu

BAI badio, lagundu,
txosna-gunera gerturatu

Mutilak, ez izan konplize!

Txosnara **norbait erasotua izan dela** esanez baldin badator:

- 1 Salaketa jasotzen duenak egiten ari dena utzi eta erasotuari kasu egingo dio
- 2 Arretaz entzun (azalpenak, beharrak...) eta ez jarri zalantzan kontatutakoa
- 3 Leku fisiko seguru bat bermatu: entzuteko, lasaitzeko...
- 4 Erasoa identifikatu: entzun, eta erasoa zehaztu.

Erasotuari **emozionalki babes osoa** eskainiko diogu

Erasotzailearekin hitz egin eta argi utziko diogu **ez dela horrelako jarrerarik onartzen eta gunetik kanporatuko dugu** (hau taldearen babesean egitea garrantzitsua da: seguruagoa izateko eta gaitzespena garbi geratzeko).

Eraso sexista larriak gertatzen direnean emakumeari jakinarazi **beti eska dezakeela LAGUNTZA**, salaketa jarri nahi badu ala ez:

943 22 44 11 (24h)
GIZARTE LARRIALDIETAKO
FORU ZERBITZUA

ERANTZUNA eman: jai gune/kale/tabernetan eman daitezkeen eraso sexistei erantzun.

- 1 Jendeari erasoaren berri eman (ahoz aho, mikro, kartel bidez...) Izenik gabe.
MORBORIK EZ!
- 2 Jai gunean erasoak salatzekeo arbela/pankarta... jarri

Antolatzaileak bildu eta erantzuna zehaztu (jai guneak ixtea, musika kendu une batez...)

GOGORATU!

1. Erasotutako emakumearen erabaki guztiak errespetatuko ditugu.
2. EZ dago salaketa jartzera behartuta, berak hala nahi ez badu behintzat.
3. Sexu erasoak bada: jakinarazi behar diogu ez duela arropaz aldatu behar, ez eta bere burua garbitu behar ere, eta aho-bortxaketa bada, ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko frogak desagertu daitezkeelako.

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkartea

Erredaktore burua
Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Aiora Larrañaga
Elizabete Manterola
Maria Maya
Intza Unanue
Rikardo Uzquidun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Meltxor Artetxe
Libe Garmendia
Iñaki Iturain
Garbiñe Manterola

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Ibon Berasaluze,
Endika Ruiz (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Iñigo Expositori jarri dio puntua Goiuri Unanuek: *Behobia dator ta zuk ze asmo duzu?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

IÑIGO EXPOSITO (DOINUA: BALEAREN BERTSOAK)

Behobia dator ta zuk ze asmo duzu?

Ahalik eta azkarren iristea helburu. Eguraldia lagun aurten izan dugu, jendearen oihuek digute hauspotu.

Lasterketa honek du zerbait berezia, ibilbidea dugu gogor ta bizia ikusleei esker da oso dotoria korrikalarik dute meritu handia.



Hurrengo bertsolaria: Jon Agirresarobe

Puntua: Nola doa aurtengo bertso txapelketa?

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara
688 859 682 (Sonia)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Eskerrik asko Martxeloren margoagatik

Eskerrak eman nahi dizkiogu Iñigo Manterola Oiarzabali eta bere lagunari, gaztetxe ondoan Martxeloren omenegin duten margoagatik. Martxeloren familiak asko eskertzen dizue keina. ■ **Martxeloren familia**

Boto batzuk irabaztearren

Harriduraz hartu genuen Orioko udalean oposizioa osatzen duten hiru alderdien ordezkariak ekimen pribatu batek egindako hirigintza proiektu bat aurkezteaz gain, ekimen honetara atxikitzen zirela ikustea –izen-abizen, NANA eta guzti–.

Harridura aurkezpenarengatik. Proiektua ezagutzen genuen baina bezperan udal talde guztiek bilera izan genuen eta inork ez zigun ez aipatu ez gonbidatu aurkezpenera. Harridura ere, ondorioz, gonbidatuak izan ginena adierazpenak.

Egiari zor, esan beharra dugu, nahiz eta argazkirako jarri ez, bai joango girela aurkezpen ekitaldira, benetako jakin-mina baikenuen proiektuaren *salmenta* nola egiten zuten ikusteko.

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektroniko honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Proiektuaren inguruan zalantza ugari ditugu eta horrexegatik berau aztertzen jarraitu behar da. Bidezkoena dela iruditzen zaigu eta, gainera, kudeaketan ditugun arduren ondorioz egin behar duguna da.

Aurkeztu zitzaigun proiektuak ez du bat egiten gure horretarako onartua dagoen hirigintza planeamendurekin, udalean aho batez onartutako proiektuarekin. Oposizioan dauden, eta argazkirako prest jarri ziren, hiru alderdien ordezkariengatik ere.

Ausarkeritik gertu dagoen arduragabekeria delakoan gaude. Ez dakigu zeintzuk diren proiektu eta atxikimendu hauen atzean dauden benetako arrazoiak eta ezkutuan dauden intentzioak, baina gure iritziz, momentu oro izan behar dugun motibazioa gure herritarren alde lan egitea izan behar da.

Tamalez, boto bakar batzuk lortzeko, herritarrak engainatu nahi direla iruditzen zaigu eta gu ez gara horretara jarriko. ■ **Orioko EAJ**

Dike plana, kudeaketa txarraren ondorioak

Bitxia egiten zaigu Orioko EAJren jarrerera. Dike plana dela-eta, harridura azaldu dute beste alderdi guztiek emandako atxikimenduaren aurrean.

Zer espero zuten? Berek ezer ez egin eta besteok geldirik egotea?

Ez da denbora asko idatzi bat kalera-tu genuela, Plan Orokorreko lanen atzerapena salatuz. Bertan nabarmentzen genuen EAJren udal gobernuaren ekimen faltak bi urteko atzerapena ekarri duela eta ez direla bete enpresa aholkuemailearekin hartutako konpromisoak.

Orain, EAJren erruz, enpresak 43.000 euro gehiago eskatu ditu eta, la-

ile apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

URAITZ
Lurrindotzia
jantzi sagarriak
Euzko 13. Ibilbidea 943 83 18 97

&XP
ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito
943 831 774
600 856 728
anderexpoelektrizitatea@gmail.com

EKILORE GARBIKETAK
626417841
ekilore@outlook.es

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

2GURPIL
Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orío (Gipuzkoa)
T 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com

nak bertan behera gera ez daitezen, onartu egin behar izan dugu.

EAJ geldirik dago; baina besteok, ez. Dike planaren proposamen berriaren irtenbide duin bat aurkitu nahi diogu, bereziki, Kofradiako gaur egungo egoera larriari, herriarentzako onuragarria izango den soluzioa planteatuz. Horretxegatik, oso larriak iruditzen zaizkigu EAJk zabaldu dituen susmoak, beste alderdi guztiek ezkutuko asmoak dituztela esanez. ■ Orioko EH Bildu

Egusenti abesbatza

Gauza guztiek izaten omen dute beren hasiera eta, baita, beren bukaera ere. Eta guk, Egusenti Abesbatzak, erabaki hau hartu dugu: hogeitau urte eta gero, bukatutzat ematea gure ibilbidea.

Denboraldi horretan saiatu gara, nola herrian hala ibili garen tokietan, Oriozena ahal den gorena jartzen. Toki guztietan bezala, guk ere izan ditugu gure eztabaidak, baina oso gustura gaude eginako lanarekin. Asko gozatu dugu eta zuek ere hala egingo zenutela espero dugu.

Eskerrik asko denoi. Aupa Orio!

■ **Egusenti Abesbatza**

Elkartasun tonbola

Aurten ere, urtero bezala, Orioko ikastolako DBH4ko ikasleok antolatutako Elkartasun Tonbola ospatuko da Gabon egunean. Badira urte batzuk antolatzen hasi ginela, eta jendeak harrera bikaina egin izan dio.

Tonbolan eskuragarri egoten diren

sariak, dendaz denda eta tabernaz taberna pasa eta bertakoek borondatez emandako opariak bilduta lortzen dugu. Aurten ere Orioko komertzioei laguntza eskatu beharrean gaude, izan ere, beraien eskuzabaltasunarengatik antolatu dezakegu tonbola.

Tonbolaren bidez lortutako irabazi guztiak, bi zatitan banatzen ditugu: irabazien erdia, martxoan egingo dugun Ikasketa Bidaia finantzatu ahal izateko, eta beste erdia, berriz, Rwandako Gihara herriko eskolara bidaltzen dugu, bertan ezinbestekoa duten materiala erosi ahal izateko. Horregatik deitzen zaio Elkartasun Tonbola.

Besterik gabe, gure eskerrik beroenak urtero hau guztia aurrera eramaten laguntzen diguzuen guztiei. ■ **Orioko Herri Ikastolako DBH 4ko ikasleak**

HILDAKOAK

- Bixente Zuloaga Azkue, azaroaren 19. 86 urte..
- Juan Arruti Azpeitia, azaroaren 9. 96 urte.
- Mari Karmen Azkue Etxeberria, azaroaren 5. 80 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Ander Lopez Gonzalez de Txabarri eta Itsasne Agirregomezkorta Ucin, Orion, urriaren 28an.
- Ana Mari Romo Barrenetxea eta Jokin Sanchez Aizpurua, Orion, urriaren 14an.

JAIOTAKOAK

- Basna Ben Cheikh Madrane, Orion, azaroaren 17an.
- Inar Osa Erdoiza, Orion, azaroaren 11n.
- Arya Astrain Nicolas, Orion, azaroaren 1ean.
- June Aizarna Sarasola, Orion, urriaren 23an.

 Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arantzale kalea, 8
T 943 134 885
ORIO (Guzkot)

Zigardu kalea, 18
5. Piztoko kalearekin zuzen
T 943 141 834
ZARAUZ (Guzkot)

Erribera kalea, 10
T 943 141 020
ZARAUZ (Guzkot)

www.kaioa.es

 ORIA
hortz klinika

Arantzale kalea, 63 beheko
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Orio Hortz Klinikak **ORFODONTZIA** zerbitzu berria jartzen du martxoan. Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre erorkizuneari sari dazketeen arazoei.

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,
benetosak, akupuntura,
enkarro terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Arantzale kalea, 11 beheko

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03



Tokikom sarierako izendatu zuten **KARKARA**. KARKARA



Kanpaina ona egin dute aurten arrantzaleek. KARKARA



Hogei urte eta gero, agur esan dio Otxoteak Oriori. KARKARA

Urmitik ezer ez

“Iraileko kronikan genion, olatu aparretan genbiltzala urrezko Kontxa eta urre gorrizko gazta zela eta.”

Urria eta, batik bat, azaroa tristea, hila eta iluna izaten da. Herrietako plazak ere husten joaten dira, udako ospakizun eta terrazetatik urrun. Bistan da hala dela, baina bistan da baita azaroan bertan izaten dela zer ikusi, ospatu eta antolatu.

Iraileko kronikan genion, olatu aparretan genbiltzala urrezko Kontxa eta urre gorrizko gazta zela eta. Urrian, artean, olatu segida aprobetxatzen ari ginen, Donostiako Beldurrezko zinemaldian saria jaso zuen Errementari filmak, eta azaroan etxeko batzuek irabazi dituzte Aiako Idi demak, Arzadun Etxeberri baserriko anaiek. Guk ere, **KARKARAK**, irabazi ez genuen bada ia-ia Tokikom sarierako bat!

Olatuetatik bajatzeko zorian daudenak, arrantzaleak dira. Urritik ezer ez du izan aurtengo kanpainak, latz harrapatu dute atuna aurtengo kosteran. Orain karroa betetzeko garaia heldu zaie, bi zentzuetan. Baporeak konpondu eta txukuntzeko batetik, eta erosketak egin eta oporretan pentsatzeko bestetik.

Sanmartinak eta sanromanak pasa diren honetan, esaerak dion bezala batean negu bestean uda, sanikolasak datoz, baina baita Durangoko azoka ere. Xabier Lizaso Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko adiskide izendatu dutela ahaztu gabe, Gozategik 25 urte egin dituela gogoratuz, eta Egunsentia otxotea betiko oroituz, kimu berriak bistaratuko dira aurtengo azokan. Erne ibili.

Eta beti esaten den bezala, ondo pasa festak baina pasatu gabe!

KARKARIÑOAK

Askotan etortzen al zara idi probak ikustera?



“Urtean pare bat egunetan etortzen naiz normalean”

Urnietakoa naiz izatez, eta urtean pare bat egunetan etortzen naiz normalean Aiara Kintopeko Idi Probak ikustera. Beste herrietara ere joatea gustatzen zait, tarteka. Bestelako herri kirolak ere ikusten ditut, gutxiago agian, baina egokitzen denean joaten naiz ikustera.

Urnietan, herriko festetan, egoten dira urtean behin. Baita auzoetako festetan ere. Orduan joaten naiz ikustera.

Duela hogeita bost edo hogeita hamar urte inguru Urnietan antolatzen genituen idi demak eta orduan sartuagongo nengoen eta gehiago ikusten nituen. Orain, berriz, ez nago hain sartua eta nohizean behin etortzen naiz demak ikustera.

Iñaki Goenaga



“Ia probaleku guztietara joaten naiz”

Bai, asko etortzen naiz. Ni Lau-diokoa naiz, arabarra, baina ohitura handia dut idi probak ikusteko.

Asko gustatzen zait. Ia proba guztietara joaten naiz, egun batean behintzat. Aiara, adibidez, azken egunean etorri naiz, gaur jakingo delako nork irabazten duen. Gainera, lagun batek jokutzen du eta bera ikustera etorri naiz.

Aiara bakarrik ez, beste tokietara ere joaten naiz askotan. Ia probaleku guztietara, hain zuzen.

Beste herri kirolak ere gustuko ditut, aizkora, adibidez. Orokorrean herri kirolaren mundua atsegin dut, eta baita apustuak ere.

Udane Arbaiza



“Herrian direnean, etortzen naiz idi probak ikustera”

Aiarra izanik, herriko idi-probatara etortzeko ohitura dut. Bestela ez naiz joaten idi demak ikustera, baina herrian bertan denean bai. Urtean bitan izaten dira eta gustatzen zait etortzea, batez ere azken egunetan. Jende gehiago etortzen da azken egunean, animatuagoa egoten da giroa. Urtez urte jende gutxiago etortzen da idi probak ikustera, baina gaur, azken eguna denez, giro ederra dago. Kanpotik ere etortzen dira demak ikustera. Idiak nongoak diren, inguru horietatik. Bizkaia aldetik, adibidez, etortzen dira batzuk.

Herri kirolak ikustera etortzen naiz herrian egiten dituztenean. Kanpora ez daukat ikustera joateko ohiturarik.

Kepa Landa

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Lana da sekretu bakarra”

Maider Sukia Etxeberria Potxak



Osagaiak

Oliba olioia
Baratxuri ale pare bat
Tipula laurden bat
Azenario bat
Porru bat
Tomate saltsa, pare bat
koilarakada
Kilo bat potxa edo babarrun zuri freskoa
Perrexila
Piperminak edo *gindillak*.

Edaria

Sagardoa, Sukian bada nahiko aukera.

Nola egin

Baratxuria eta tipula zuritu eta zatitu. Oliba oliotan egin kolorea hartu arte. Azenarioa eta porrua gehitzen dizkio, zurituta baina osorik. Ondoren potxak gehitzen dizkio eta urez estaltzen ditu, bi behatz gehiago ura. Ordu erdi bat behar dute, ez gehiago, babarrun freskoak dira-eta. Potxak egin direnean azenarioa eta porrua atera ohi ditu. Irabiagai- lu elektrikoaren laguntzaz txikitzen ditu eta tomate saltsa gehitzen dio. Nahaskia potxei gehitzen die, ostera. Buelta bat eman, bi minutuz sutan utzi eta perrexil xehetua eta piperminak gehitzen dizkio plateran. Laguntzeko aukera guztiak zabalik uzten ditu Maiderrek: txorizoa, odolkia, saiheskia...

J. AGIRRESAROBÉ

Lana al da sekretu bakarra?

Etxean hala ezagutu dugu umetatik. Esaterako, udan belarretara joaten ziren familiakoak. Nik berdea zapaldu orduko alergia izaten nuen eta sukaldean irakatsi zidaten. Arratsaldero familia osoarentzat otordua prestatzen nuen oso gazterik. Hamabost urterekin hasi nintzen Kanpineko tabernan, Joxe Marirekin eta Doritarekin. Bi uda izan ziren eta oso oroitzapen ederrak ditut. Hamaika barre egindakoak gara Juanita *Etxaide* eta biak. Aste Santu bueltan hasi eta udan amaitu arte egoten ginen. Aterpe tabernan aritu nintzen gero: Inaki Makazagarekin aurrena, nire kontura gero. 2006. urtean, 20 urterekin, neronek hartu nuen tabernaren ardura. Aterpe izan zen nire unibertsitate karrera, bost urtekoa. Lehen umea izan baino hilabete lehenago utzi nuen.

Ostalaritza ez da ordutegiz eta aldarrez ofizio samurra. Zure kasuan miraria ere bada, hiru umeren ama zaren aldetik.

Nola uztartzen dituzu bi etxeak?

Tabernako lana lotua da. Aste barruan goizez etortzen naiz, hamarrak eta erdiak aldera. Ahal dela lauretan amaitzen dut lan jarduna, umeak Ikastolatik jaso ahal izateko. Hori bai, os-tiraletik igande gauera tabernan egoten naiz. Sukiak, dagoen lekuan dagoelako, umeak bueltan ibiltzeko aukera ematen du. Haur txikiak esku gehiago eskatzen du, baina behin pika bat hazten direnean ederki egoten dira taberna inguruan jolasean. Txominen, Kattalinen eta Eñauten haurtzaroaren parte izango da Sukia, auzoko umeekin ibiltzen dira. Oporretan izan berri gara eta bueltakoan hala galdetzen zidaten: noiz joango gara Sukiara?

Sukia ingurua leku berria zen taberna jartzeko.

Gogoan dut Egoitz senarra eta biok Veneziako autobus geltoki batean geundela amak deitu zidala: Udalak gaur taberna dagoen lokalaren lehiaketa zabaldu zuela esateko deitu zidan. Aitak eta amak izan zuten ideia eta gurasoek asko lagundu didate. 2013. urteko maiatzean ireki genuen eta kon-



Egunero eskaintzen du menua Mainerrek Sukian, asteburuetan ere bai. KARKARA

“Sukalde lana eta zerbitzatzea biak ditut gustuko, eta negozioaren martxari tankera hartzeko biak tartekatu behar dira”

turatzerako pasa zen lehen uda, eromena izan zen. Negua, berriz, gogorra, ez zen gaur adina jende bizi auzoan. Baina orain herritar asko etortzen da, lau bezerotik hiru oriotarrak dira. Oso eskertu nago, neguan auzoko edo herriko taberna gisa funtzionatzen du. Etxeko tratua ematen saiatzen gara, xume eta taxuz emanez.

Etorri izan gara sagardo ezberdinak probatzera. Sukian duzuen sagardo aukera leku gutxitan topatzen da.

Tabernetan sagardo aukera bakarra egoten da, gehienetan bai behintzat. Jatetxe on askotan ere bakarra izaten da sagardoa. Anaiak esan zidan aukera ugaritzeko. Bi edo hirurekin hasi ginen eta dozena erdi baino gehiago dauzkagu orain, bederatzi ere kontatu izan ditut. Aukera eta prezio ezberdinekoak, noski. Sagardo motak eta etiketak ere ugaritzen ari dira eta jokoak ematen du bat eta beste probatzeak.

Aukeran, kanpoko edo barruko lana zer duzu nahiago, sukaldea edo zerbitzatzea?

Biak ditut gustuko, eta uste dut negozioaren martxari tankera hartzeko biak tartekatu behar direla. Lehen urteetan sukaldean egoten nintzen, baina jendearekin egotea ezinbestekoa da: zein datorren ikusi, bezeroekin hitz egin...

Ez zarete asko gazte ekintzaileak. Alde handia al dago beste en tabernan lan egitetik norbere negozioa eramatera?

Gaztetan egin behar dira horrelakoak. Hogei urterekin eman nuen saltoa eta ez nintzen oso kontziente, oso azkar pasa dira urte hauek guztiak. Gogoratzen dut, esaterako, hornitzaileekin prezioak adostea ez zitzaidala batere samurra egin lehen urteetan. Baina gaztea nintzen eta lana egin nahi nuen, hori nuen buruan. Gaur egun umeekin eta lotura gehiago ditut, neurria hartzen saiatzen naiz. Hori bai, lana da sekretu bakarra.

eduzitegia
ANTILLA
jateketa

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Carmen eta Txomin
 ARRADEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

HAIZE BERRI
 taberna-jateketa-kafeategia

Plater konbinatuak,
 bokalak,
 hotburgesak,
 raziok,
 eguneko menua...

*ostiralean
 pintxo
 potea!!*

eta etxera eramateko
 zerbitzua!

943 831 623

Orioko Ibaidegian, Erbera 1



**ASADOR
 XIXARIO**

Euzko Gatales Kalea, 2
 Tel. 943 830 019 - ORIO

Portu
ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 2/6
 943 89 2434
 20809 AIA-ORIO

*luzatik laseratsa ateratzen
 pintxo erabak egindako menua*

ITZALA

*kartelak jokatzenko
 aprofesatzen*

tel. 943 83 12 59

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

KOLON TXIKI
 ogitaratekoak
 jateketa



Herriko Euzarantz, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ARISTERRAZU
 jateketa



Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-
 fotorosanaarruti@gmail.com
 teli: 943 83 58 45



**GORA 2017ko
 SAN NIKOLAS JAIAK!**
 JATEKETA

Galerna

Antillako Hondartza 5
 20810-Oriko-Tel.:943 89 04 16



KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176
 Herriko euzarantz

lzozki naturalak - Opilak

arkaitz taberna
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

Haur obesitatea: XXI. mendeko pandemia



Libe Garmendia

Joerak horrela jarraitzen badu, historian lehen aldiz 2022 urterako haur obesoak gehiago izango dira desnutrizioa pairatzen dutenak baino.



zken 40 urteetan, obesitatea duten haur eta nerabeen kopurua 10 aldiz biderkatu da. Joerak horrela jarraitzen badu, historian lehen aldiz, 2022. urterako, haur obesoak gehiago izango dira desnutrizioa pairatzen dutenak baino. Azken urteetan, herrialde txiroetan igo da kopurua gehien; herrialde garatuenetan, berriz, datuak mantendu egin dira. Hala ere, datu horiek kezkarriak izaten jarraitzen dute oraindik.

Euskal Herrian, 19 urtetik beherako haur eta gazteen %8k du obesitatea. Gainpisuari dagokionez, mutilen %18,7k du, eta nesken %14,1ek. Hemen ere, maila sozial baxuagoa dutenen artean da nagusi, batez ere. Beraz, esan genezake hemengo datuak munduan gertatzen ari denaren isla direla.

Datu kezkarriak dira benetan. Haurretan eta nerabeetan obesitatea izateak ondorio larriak izan ditzakeela jakinik, fokua prebentzioan jarri behar dugu.

Alde batetik, aldaketak arlo politiko eta sozialean gauzatu behar dira; esaterako, elikagai osasungarriak merkeagoak izan beharko lirateke. Bestetik, gobernuek debeku eta kontrol gehiago egin beharko lituzkete elikagaien industriek eskaintzen dituzten produktuak, eta elikagai kaltegarrien publizitatea debekatu. Azkenik, elikadura heziketan gehiago sakondu beharko litzateke.

Baina politika horiek guk aldatu ezin ditugunez geure etxean egin behar dugu ahalegina. Haurrari txiki-txikitatik, lehen elikagaiak eskaintzen dizkiogunetik, elikatze ohitura osasungarriak erakutsi behar zaizkio, elikagai egokiak eskaintzen eta azukre eta gantz kaltegarriak eginiko produktuak ekidinez. Era berean, haurrak mugitzera animatu behar ditugu, beraiekin jolastuz eta plan aktiboak eginez. Ez dugu ahaztu behar gu geure garelako txikien eredu. Beraz, beraiek ohitura osasungarriak jarraitzea nahi badugu, ezinbestekoa da etxeko helduek ere ohitura berberak jarraitzea.



Iñigo Gaiton

Osaba Lauri



aureano. Aitonaren anaia izan arren, niretzat osaba betidanik. Arin & Embilen arotza izandakoa.

Arrantzale amorratua, denbora librean. Beraksartu zidan ahoan aurrenekoz itsaso zati bat, umea nintzela, labanarekin arrokari lapa bat ostuta. Gordin gordinik irentsi nuen.

Gerora, urte askotan eskoilera aldean egin izan dugu topo. Jubilatuta, bi buelta egiten zituen hondartzara eguneroko. Kanaberarekin edo, besterik gabe, pasieran. Olatuen eta surfariaren parte ere pasatzen zidan. Urteekin gorputza makaltzen hasi zitzaionean, familiakoen errietek atera zuten arrokartetik.

Aspaldiko partez, lehengo hilean elkarrekin bazkaldu genuen, bere bilobaren ezkontzan. Plater batetik besterako tartean, kontu kontari ari ginela, *ni ederki bizi izan nauk* edo antzeko zerbait esan zidan; edo, ulertu nion. Titular ederra iruditu zitzaidan, ia 90 urte bete dituen gizasemearen bizitzarentzat. *Lana erruz egin arren, bizitza ondo gozatu du Laurik*, pentsatu nuen nire golkorako. Gauza gutxirekin.

Gaur egun, urrea balio du lapa haren zaporea ahoan mantentzeak. *Zoriontasunak itsaso aldamenen behar du, nonbait*. Egungo gizartean ez itotzeko, lezio hori eman zidan osabak 1994ko abuztu hartan; nahigabe, ziurrenik. Bizitzarako baliagarriak diren ikasgaiak benetan erakusten diren bezala.

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

GARMENDIA
HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com

ZAUDEN
LEKUAN
ZAUDELA

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

Endala Erparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

Azkue

Tf: 943 130 438

urbide

iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkata Kalea, 4
20800 Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskaInet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com ☎ 665 70 33 47

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

ANOBA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

-komertzial instalazioak - beira bikoitza
-segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
-ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 OREKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascarraigerros@ yahoo.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK INKOTZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA



Hondakin bilketa mankomunatua

Hondakinak gaika biltzeko sistema berria abiatuko dute 2018ko otsailean. Etxebizitza bakoitzak txartel magnetiko bana jasoko du, zaborra eta organikoa sailkatu ahal izateko. 2020rako birziklapen tasa %40tik %75era igotzea da helburua.

TESTUA: M. GARCIA

ARGAZKIAK: KARKARA

Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du 2018tik aurrera Aiako, Orioko, Getariako, Zarauzko eta Zumaiako hondakinen bilketa. 2016ko abenduan onartu zuten zabor bilketa mankomunatzeko akordioa eta, urtebete inguruko lanketaren ostean, martxan jartzera doa sistema berria. Serbitzu eta FCC enpresek osatutako UTEak irabazi zuen lehiaketa eta zerbitzuaren esleipena 2.797.252,36 eurotan egin da.

Birziklatze tasa igotzea helburu

Urola Kostako birziklatze tasa %45ean dago orain, baina Orioko eta Aiako datuak hartuz gero jaitsi egiten da portzen-

tajea. Orion, 2016an, 2.349.292 kilo hondakin bildu ziren, eta horietatik %40a birziklatu zen. Aian, bildutako 953.786 kilo hondakinetik, %26a birziklatu zen. Gaur egun, %25ean dago Aiako tasa eta %39an Oriokoa.

Hondakinak gaika bereiztu eta sailkatzea herritar ororentzat betebeharrak dela dio akordioak. Horregatik, bilketa sistema berriaren helburua gaikako bilketa tasa handitzea eta errefusarena txikitzea da. Lehenengo urtean %60ko birziklatze indizea lortzea da helburua. 2019an tasa hori %70era igo nahi dute, eta %75era 2020an.

Aipaturikoak gutxieneko helburuak direla dio akordioak. Izan ere, helburua ahalik eta jasotze tasa handiena lortzea da, kontuan izanik beste zenbait eskualdetan %80era iritsi dire-



la gisa bereko sistemak erabiliz. Aipaturiko portzentajeak lortzen ez badira, neurri zuzentzaileak har ditzake Udal Elkarteak: errefusaren edukiontzia irekiera denboran mugatzea, edukiontzien erabiltzaile kopurua mugatzea.

Hiru multzotan

Hiru adarretan banatuko da hondakinaren bilketa: etxeko hondakinak, komertzioa eta ostalaritza eta, azkenik, enpresak.

Etxeko hondakinak bost edukiontzi bidez jasoko dira, orain arte bezala: errefusa, organikoa, papera-kartoia, ontzi arinak eta beira. Aldaketa bakarra errefusa eta organikoaren edukiontzien erabilera mugatua izango dutela da, hau da, txip bidez irekiko dira. Etxebizitza bakoitzak bere txartela jasoko du eta txartel hori edukiontzi zehatz bati lotua egongo da. Edukiontzi horiek 24 orduz egongo dira erabilgarri, egunero. Gainerako edukiontziak irekiak izango dira, ez da txartelirik behar horiek irekitzeko.

Landa eremuan, zenbait gunetan errefusa edukiontziak daude orain. Sistema berriarekin gunek osatuko dira eta zabor bilketa zentralizatuko da gune horietan. Horrela, landa eremuan ere gaikako bilketa egingo da.

Komertzio eta ostalaritzan, puntuz puntuko bilketa zerbitzua eskainiko zaie sortzaile handi eta ertainei. Organikoa, papera-kartoia eta errefusa izango dira puntuz puntu bilduko diren hondakinak. Astean 7 egunez emango zaie zerbitzua ostalariei eta 6 egunez merkatariari.

Azkenik, industrialdeetan puntuz puntu bilduko dira enpresen hondakinak: organikoa, errefusa, ontzi arinak, egurra, papera-kartoia eta plastiko filma/poliespana. Jantokia duten enpresei hondakin organikoen sortzaile handien pun-

“Birziklatze helburuak betetzen ez badira neurri zuzentzaileak har ditzake Udal Elkarteak.”

“Errefusaren eta organikoaren edukiontzien erabilera mugatua izango dute, txip bidez irekiko dira.”

“Hondakinak gaika bereiztea herritar oroaren betebeharra dela dio akordioak.”

tuz puntuko bilketa aplikatuko zaie. Zarauzko Abendaño industriagunean horrela egiten dute gaur egun eta eskualde osora zabalduko dute.

Bilketa puntuak eta edukiontziak

Kaleko hondakin bilketak 239 bilketa puntu izango ditu eskualde osoan. Horietatik 14 Aian egongo dira eta 38 Orion. Edukiontziak albo kargakoak izango dira, eskuineko aldetik. Bilketa sistema efizienteagoa da sistema horrekin, kamioi gidari bakarrak egin dezake bilketa.

Gaur egun dauden guneak albo kargako sistemara egokitu behar dituzte Udalek. Orion, lurrazpiko zenbait gune kendu eta lurgainera pasako dira eta beste batzuk, lurpekoak izaten jarraituko dutea eta karga lateralera egokituko dira. Hondartzan, Antilla 16 eraikinaren aurreko gunean, proba egingo dute lehenbizi. Ondoren, aldaketaren koste erreala zein den ikusita, gune gehiago egokituko dituzte. Aian lurrazpiko hiru gune kendu eta lurgainera pasako dituzte.

Komertzio eta ostalaritzako puntuz puntuko bilketarik ez da izango Aian. Merkatari eta ostalari kopurua txikia denez, kaleko bilketa sistema erabiliko dute. Orion, berriz, 45 puntutan jasoko da biohondakina eta errefusa eta 50 puntutan papera eta kartoia.

Enpresetan, bakoitzak sortzen duenaren arabera egingo da bilketa. Aian, inerteak jasotzeko 52 puntu izango dira, kartoia jasotzeko 42, egurra jasotzeko 2 puntu, ontzi arinak jasotzeko 9, filma jasotzeko 17 eta biohondakina eta poliespana jasotzeko puntu bana. Orion, berriz, kartoia jasotzeko 3 puntu izango dira, inerteak, egurra eta filma jasotzeko bina puntu eta ontzi arinak jasotzeko bat. Poliespana eta biohondakina jasotzeko punturik ez da izango Orion.

Martxan jartzeko faseak

Bilketa eta sailkatze tasa igotzeko helburuak betetzeko herri-tarren sentsibilizazioa oso garrantzitsua da. Horregatik, bilketa sistema berria jarri aurretik komunikazio kanpaina bat egiten ari da Urola Kostako Udal Elkarteak. Lau fase ditu kanpaina honek. Azaroan zehar sentsibilizazio kanpaina egiten ari da Udal Elkarteak. Herritarrei sistema berria ezagutaraztea dute helburu fase honetan, 2018tik aurrera aldaketa izango dela jakinaraztea.

Bigarren fasea, informazio fasea, abenduaren lehen hasiko dute. Fase horretan sistema berriaren funtzionamenduz informatuko dituzte herritarrak. Herriz herri bilerak eta aurkezpenak egingo dituzte jendaurrean. Ostalari eta merkatari elkarteekin ere bilduko dira. Horrez gain, eskuorriak banatuko dituzte etxez etxe, sistema berriaren inguruko informazioarekin.

Urtarrilean ezapren fasearekin hasiko dira. Hilabete hasieran edukiontziak irekitzeko txartelak eta etxebizitza bakoitzari dagokion edukiontziaren inguruko informazioa jasoko dituzte etxean herritarrek. Horrez gain, herri guztietako udaletxeetan bulego bana jarriko du Udal Elkarteak, zalantzak argitzeko eta informazioa emateko.

Urtarrila amaieran errefusaren eta organikoaren edukiontziak aldatzen hasiko dira eta otsailaren lehen herri guztietan martxan izango da bilketa sistema berria.

Otsailetik aurrera laugarren fasean sartuko dira: jarraipen fasean. Bildutako hondakinen datuak hileroko jaso eta zabalduko dituzte. Horrez gain, lan talde politiko eta tekniko bat sortu dute sistemaren jarraipena egiteko eta horren inguruko gaiak lantzeko. Bost udaletako teknikariak eta talde politikoetako ordezkariak osatuko dute lan mahaia.

Inbertsioak eta tasak

Sistema berria martxan jartzeko urteroko inbertsioa 497.519,82 eurokoa izango da sei urtean. Kamioi flota berria osatuko dute sei urtetan eta edukiontzi guneak eta pisaketa sistemak egokitu beharko dira, besteak beste. Inbertsio horiek epe luzeak izango dira, hau da, kontratuaren 6 urteak pasa eta berri bat egiten denean oraindik erabilgarri egongo dira kamioi eta edukiontzi horiek. Kontratu berria egitean, beraz, inbertsioa txikiagoa izatea aurreikusten dute.

Etxebizitzek eta puntuz puntuko bilketa zerbitzua jasotzen duten ostalari eta merkatariak tasa finakoak ordainduko dituzte urtean zehar. Onartuta eta jendaurrean daude dagoeneko eta, alegaziorik jaso ezean, indarrean sartuko dira urtarrilaren 1etik aurrera. Orain ordaintzen direnekiko aldaketak izango dira tasetan, baina Aian eta Orion ez dira oso nabarmenak izango.

Enpresek, aldiz, tasa pertsonalizuak izango dituzte, hiru zatitan banatuta: enpresen azalera, edukiontzien alokairua eta hondakinen bilketa. Sortzen dutenaren arabera bilketa egingo da eta jasotzen denaren arabera kobratuko zaie. Aurrera begira, sortzen denaren arabera ordainketa sistema puntuz puntuko bilketa gune guztietara zabaldu nahi du Udal Elkarteak. Taseen kobraketa, bost herrietakoa, Udal Elkartetik bideratuko da.

Edadea



Garbiñe Manterola

Gazte aurpegia dudala sinestarazi didate beti. 24 urterekin agiri bidez erakutsi behar izaten nuen 18 nituela. Horrela ez da erraza izaten heldu zarela konturatzea.

gande goiza da, herriko plaza. Txakolina eskuetan eta kalamarrak deitzen dioten -baina inondik inora ez diren eta gorroto ditudan- gauza likatsu horietako batzuk platertxoan. Aldamenean dudan lagunak bota du bere audientzia barrez lehertzera eraman duen esaldia: *Guk bat-batean egingo dugu gaztetxetik zaharretxerako saltoa, ez da?* Trantsizioa ez omen da goxoa izango, aldaka herdoilduekin kontzertu makarraren batean gozatu eta hurrengo egunean musean jokatzera tokatuko zaiguetan. Siestarik gabe, baina ordurako anestesiaturtuta, poltsikoan izango dugun pilula sortarekin.

Azken hilabeteetan adinaren kontua hitzetik hortzera dabilte ingurukoek, erran nahi baita, azken hilabeteetan hipersentsibilitate moduko bat garatu dut gaiari dagokionez. Ez da harritzekoa adinari erreparatzea 17 urteko zure musika bandako kolegak natural-natural zea, *orain esan mila bederatziehun eta zerbaiten atera zenuela gidatzeko baimena* esaten dizunean. Aiar arraioa.

Gazte aurpegia dudala sinestarazi didate beti. 24 urterekin agiri bidez erakutsi behar izaten nuen 18 nituela. Horrela

ez da erraza izaten heldu zarela konturatzea. Baina bada denbora onartu nuela. Ez naiz gaztea, heldua naiz. Bestela 17 urtekoa zer da bada, besotako umea?

Halere, norberak onartzeak ez du askotan ezertarako bali izaten. Bandako beste batek, 21 urteko mutil ez hain koskorrak, zer ikasten dudan galdetu baitzidan aurrekoan. Ahots larriz atera zitzaidan *aizu, urte asko damakit nik lanean gero*. Faborez, errespetu piska bat auto-konbentzimendu fasean dagoenari. Gazte aurpegia izatea tira, baina ez naiz betigaztea.

Baina bata dugun adina onartzea da, eta bestea urteak korrika pasatzea nahi izatea. Horregatik jarri dut martxan kanpaina elektoral berria kuadrillaren baitan. Ni ezezkoaren aldekoa naiz. 40 urte betetzeko zain ez egotearen aldekoa. Zertarako itxaron horrenbeste lagunartean oporretara joateko. Aspaldian horrelakorik egin ez izana bada nahikoa arrazoi, adina eta zenbaki borobilak baino dezente potoloagoa gainera. Neskak, guk 39rekin, ez da? Argazkiren bat bidaliko kanpaina irabazten badut.



Meltxor Artetxe

Lasarte-Oriako oriotarrak Hendaiatik III

Tristura horiek alde batera utzi eta oriotar izatearen eta sentitzearen poza eta harrotasuna azaltzeko garaia heldu zait! Eta zein gairen inguruan sutraituko ote dut harrotasun hori?

ARKARAN idatzi nuen lehen aldian nire herri-mina izan nuen mintzagai eta bigarrenean itsaso-ondoan bizitzeak uzten duen arrastoa. Bi kontakizunek halako aire triste bat zuten, nostalgia puntu bat agian....

Baina tristura horiek alde batera utzi eta oriotar izatearen eta sentitzearen poza eta harrotasuna azaltzeko garaia heldu zait! Eta zein gairen inguruan sustraiko ote dut harrotasun hori? Jakina, arraunaren inguruan!

Badakit ez dela batere orijinala eta aurtengo Kontxako garaipen paregabeari buruz esan beharreko ia guztiak esanak daudela. Baina erbeste hurbilean nola bizi izan dugun adierazi nahi nuke gaurkoan.

Hendaiatik hegoaldera Irun eta Hondarribia ondoan ditugu, Bidasoa zabalak itsasoratzerakoan sortzen duen Txingudiko badia zoragarriaren hirukotea osatuz. Eta estropada sasoiaren traineru berdearen aldeko giroa pizten da eskualde honetan, bero eta indartsu piztu ere.

Nire aldetik aitortu beharra daukat gehiegi ez dudala sufritu; izan ere, hondarribiarrak gustuko izan ditut betidanik. Orioko trainerua eta pasaitarrak baju xamar ibili ziren garaian, 1965etik 1968rako tartean, Pedreñarekin sekulako lehian ibili ziren berdeak eta gehienetan garaile gainera. Eta herriko traineruaren faltan, adopzio hartu genuen Txingudiko koadrila, euskaldunon nagusitasuna mantendu zezan.

Gainera, lehorre garaitan duintasunez ibiltzeko, oriotarrok baditugu pisuzko hainbat argudio eta arrazoi gure goi maila permanentea nonahi aldarrikatzeko eta guztiak erabili behar izan ditut urteotan: historiala –bedeinkatua izan bedi Orioren historiala!!–, hamarkadarik ez Kontxarrik gabe, Batista Oliden, Korta, Amilibia, Altxerrin koadrilak ekarri zuen iraultza, arraunlari eta entrenatzaileen *esportazioa*...

Behobia-Donostia aitzakiatzat hartuz urte guztian elkartzen gara Hendaia, Irun eta Hondarribiako lagun kuadrilla handi bat astean hiru egunez entrenatzeko eta hor izaten ditugu tirabira eta adar-jotze handienak uda partean. Baita tarteka egiten ditugun afaritan ere.

Beraz, herritik kanpo bizi garen oriotarrok ere behar genuen Kontxako bandera berri bat eta danba! Aurten eta nola!

Etor bedi, hala nahi badu, beste lehorre garai bat. Jasango dugu hura ere, aurtengo handia izan baita, izugarria, mitikoa... eta askorako emango digu!

“Kontsumoa bizitza espiritualaren gaineratik dago gaur egun”

Jexus Artola

Aiako apaiza

Jexus Artola Iburguren Aiako apaiza da abuztutik. Aizarnarrak gustuko ditu herri txiki eta baserri giroko auzoak; hauetan, eliztarrekin konfiantzaz lan egiteko aukera izaten du.

I. GAITON

Bere eguneroko lana, sentimendu eta emozioen esparruan uztartzea gustatzen zaio. Eliztarrek buruan dituzten arazo eta kezkek zein diren asmatzeak sortzen dizkio buruhausterik handienak Jexusi.

Apaiza, bokazioz?

Ez. Fraile izateko erabakia hartu nuen aurrena, frantziskotarra. Hasiera batean, nire bizitza beteta sentitzen nuen horrela, ez nuen gehiago behar. Hamar urte geroago, ospakizun, meza eta abarretarako apaizak falta zirela ikusita, urratsa eman nuen.

Aiara etorri aurretik, Zarautzen ematen zenituen mezak

Hogeita hiru urte daramazkit bertan. Altzola, Urteta eta Urdaneta auzoetan ibili nintzen aurrena, eta gero Santa Klara rako elizan. Hau itxi zutenean, Aiara etortzea proposatu zidaten.

Herri txikietan, berehala geldituko zaitu jendeak kalean.

Bai, eta gustatzen zait. Herri txiki eta baserri giroko auzoetan oso gustura aritzen naiz lanean. Gertuko lanketa egiten da eliztarrekin, konfiantzazkoa.

Jexus hogeita lau orduz al da apaiz?

Zaila da jendeak apaiz roletik kanpo ikustea; herri txikietan, ziurrenik, zailagoa. Hori kontuan hartuz, neroni izaten saiatzen naiz beti. Gauzak barrutik sentitzen ditudan bezala azaltzen ditut. Rola kendu orde, nahiago dut nire pertsona sartu.

Zein da apaizon lana XXI. mendean?

Nik eliztarrekiko ardura bat daukat: beren fedea bizitzen lagundu behar diet. Dituzten zailtasun, poz edo kezkei fedea kutsua eman eta bizitza ematen. Lan hori, sentimendu eta emozioen esparruan uztartzea gustatzen zait. Eliztarrek nire esanak irenstea baino, nahiago dut buruan zer darabilten jakiten saiatu.

Elizetan jende gaztea falta zaizue.

Elizak, instituzio orok bezala, gauza batzuk oker egingo zituen, baina hori, gu gaintuzten gaituen uholde baten ondorioa ere bada. Gizartea izugarri ari da aldatzen, abiada bizian.

Beheranzko joera horrekin, hamarkada batzuk barru inor ez da izango mezetan, hemen behintzat.


Arrisku hori ukazina da, eta kezkatzen nau. Horren aurrean, nire ikuspegitik, ez genuke edozein preziotan instituzioa salbatzen saiatu behar. Kontrakoa, herriaren alde posizionatu behar dugu. Eliza desagertzen bada, herriak beste bide batzuk nahiago dituelako izango da, eta kito.

(...)

Gure aukera izan da kristautasuna bizitzea. Bada segi dezagun gauden bitartean bizitzen, ahalik eta gustuen.

Herriaren alde posizionatu, esan duzu.

Nik ume edo gaztetatik oraintsu arte ezagututako Eliza, udaberria izan da: alaia, argia... Herritarren pentsaerarekin,



“Eliztarrek nire esanak irenstea baino, nahiago dut buruan darabiltena jakiten saiatu.”

politikan edo lan kontuetan nahikoa bat eginda bizi zen. Izan zitzakeen akats guztiekin, herriaren Eliza zen, herritarrena.

Orain, ez hainbeste. Zer egin da oker?

Oker... ez dut uste termino egokia denik. Pertsonak bere bizitzari heldu diezaiola bultzatzen dugu guk, eta sakontasunean bizi. Aukerak norberak egin behar ditu. Gustatuko litzaziguke jendeak Elizaren aldeko hautua egitea, baina horrela ez bada, onartu egin beharko dugu.

Sexu abusu kasuak ere eman dira Eliza barruan. Gaia larria da oso.

Bai, eta irmotasunez salatu behar dira. Batzuek egin dituzten okerrekin, instituzio osoa kolpatu dute. Eliza zigilu horrekin geratu da, eta horrekin bizi beharko du. Instituzioaren barruan, sentsibilizazio aldaketa handia egon da gaiarekiko, eta errudunak agerian uzten dira.

Gizartea sexu aniztasuna normalizatzeko urratsak ematen ari da, pixkanaka bada ere. Zuek ere ari al zarete?

Nik aspaldi esan nien batzuei: Jainkoarentzat ez da lehen eta bigarren mailako pertsonik. Elizaren barruan, batzuek ez dute homosexualitatea onartzen. Hauen ikuspegitik, pertsona guztiak dira heteroak, eta batzuk ekintza homosexualak egiten dituzte. Nire ustez, homosexualitatea onartu egin behar da. Homosexualen arteko bikote harremanetan, besteetan bezalaxe, bide ematen zaio maitasunari; azken finean, ebanjelioaren oinarria joatea da. Maitatzea, beti da ona.



Jai giroa nagusi Ortzaikako sanmartinetan

Toka eta sagar biltze txapelketa, herri kirol erakustaldia, bertso afaria, mus txapelketa, oilasko biltzea... Jai ederrak antolatu dituzte aurten ere Ortzaikan. Hotzak ez zituen atzera bota auzotarrak eta jende mordo bildu zen guztietan. Azaroko bi asteburu bereziak pasa eta hurrengo urteko sanmartinetara begira jarri dira ortzaikarrak.





Irri, kantu eta dantza dispertsioaren aurka

Azaroaren 18an, larunbatean, izan zen Dispersiofff herri ekimenaren egun handia. Goizean Porrotx izan zen plazan, irriz, kantuz eta dantzaz Xuarentzat marrazkiak biltzen. Eguerdian bazkaria izan zen Etxeluzen eta arratsalde eta gauean zuzeneko musika izan zen, Kolon Txikin lehenbizi eta gaztetxean gero.

“Benetako borondatearekin, Udalean gauzak azkarrago egin daitezke”

Jose Angel Iparragirre

Orain Herri Plataformako zinegotzia

Jose Angel Iparragirrereren iritziz, herri politikan aritzea esker oneko jarduera da. Hori ez da sarritan entzuten den zerbait. Orain Herri Plataformak Orioko Udalean dituen bi zinegotzietako bat da bera. Taldearen bigarren legealdia da oraingoa, eta *aurrekoan ikasitakoak aplikatzeko* helburuarekin, gogor dihardute lanean.

KARKARA

1969an jaiotakoa da *Iparra*. Lanbide Heziketan Elektrizitatea eta Elektronika ikasketak egin zituen, eta Komunikaziorako Operadore Teknikoa da lanbidez. Beren plataformak bizitasuna galdu duela onartzen du; irabazitako esperientziarekin, lanean efektiboagoak direla ere aitortu digu.

Duela sei urte sortu zenuten Orain. Nola baloratzen duzu gaurdaino egindako bidea?

Interesgarria eta positiboa izan da taldearen ibilbidea. Normala den bezala, bihurtune eta gorabeherak ere izan ditugu. Askok ikasi dugu sei urte hauetan.

Hasieratik gaur artean, aldatu al duzue lanerako modua?

Eta norabidea?

Lanerako era aldatzen joan gara, baina taldearen norabidea ez. 2011 urteko hauteskundeetarako, pertsona askoren inplikazioarekin eskuliburu bat osatu genuen. Taldearen

oinarri eta ideia nagusiak idatzi genituen bertan. Oraindik ere, liburuxka honek markatzen du gure norabidea. Lanerako modua egokitzen joan gara, plataformako kideen denboraren eta Udaleko lan dinamiken arabera.

Bigarren legealdia duzue hau. Non kokatzen da plataformak une honetan?

Herriaren eta herritarren beharrei erantzutea da gure lehentasuna. Akaso, lehen legealdiarekin alderatuz, nerbio pixka bat galdu dugu, baina esperientzia eta eskarmentua irabazi ere bai. Ikasitakoa herritarren zerbitzura jartzeko saiatzen gara.

Zein dira zuen lehentasun eta lan lerro estrategikoak?

Ahalik eta promesa gutxien eginda, herritar guztion bizitza hobetzeko lanean jarraitzea. Horixe da gure lehentasuna.





Aurreko legealdian ikasitakoak aplikatzeko aukerarik izan al duzue?

Bai, efikazagoak gara lanean. Zerbait lortu nahi dugunean, orain zehatzago ikusten dugu indarrak zertan jarri behar ditugun; aldiz, zerbait lortzea ezinezkoa dela iruditzen zaigunean, ez dugu energia alferrik galtzen. Hala ere, egoskorrak gara, eta zailak diren gai pare batekin lanean jarraitzeko asmoa daukagu.

Autokritika eginda, zertan egin zenuten huts aurreko legealdian?

Normala den bezala, ez genuen denean asmatu. Distantziatik begiratuta, hartutako erabakiren bat edo beste aldatuko genuke orain, baina orduko egoera kontutan hartuz, gustura gaude egindakoarekin. Hori bai, *ikastolako plataforma* etiketa gainetik kentzen ez dugula asmatu onartu behar dugu. Sei urtetan hartu ditugun 3.000 erabaki ingurutik, hamar bat bakarrik izan dira Ikastolari lotutakoak.

Zalantza asko izan al zenituzten?

Guk hartutako erabaki guztiak libre eta konbentzituta hartu ditugu; batzuetan, gure artean asko eztabaidu ostean, baina beti gehiengoak nahi zuenaren arabera, modu asanblearioan. Futboleant penalti bat kale egin daiteke, baina botatzera-ko garaian ezin da horretan pentsatu. Gauzak aldatzeko gaitasuna genuela konbentzituta aritu ginen lanean.

Sei urte hauetan, asko kostatu al zaizue taldea osorik mantentzea?

“Gure taldearen lan egiteko modua aldatzen joan da, baina norabidea ez.”



Egia esan, bai. Denok gaude saltsa askotan sartuta, eta kosta egiten da talde dinamika eraginkor bat luzaroan mantentzea. Txirrindularitzan bezala, baten batek tropela uzten badu, gero oso zaila egiten zaio lan erritmorra berriz konektatzea.

Miriam Urangak zinegotzi izateari utzi zion apirilean. Zuen sorreratik, taldeko erreferenteetako bat izan da.

Kargua utzi arren, Miriamek gurekin lanean jarraitzen du. Ez da askotan gertatzen pertsona batek bozeramaile gisa ari zeko eta kudeaketarako gaitasuna izatea, eta bere kasuan hala da. Lanerako kapazitate handia du.

Zein helburu ditu Orainek etorkizunari begira?

Legealdi hau ahalik eta ondoen bukatzeko gogor dihardugu lanean. Gai sendoak ditugu mahai gainean, eta oraintxe hori da gure lehentasuna. Aurrerago erabakiko dugu segitu edo ez. Oraindik legealdi honen bi urte geratzen zaizkigu, eta askorako emango dute.

HIRIGINTZA

Herriko plazan obra handia egin nahi da: azpiegituren saneamendua eta zati handi bat oinezkoentzat bihurtu, trafikoa moilatik bideratuz. Beharrezkoa al da herriarentzat?

Aurreko legealdian obra hau aurrera eramaten saiatu ginen, baina oztopo eta zailtasun mordoa topatu genituen. Gure ustez, obra horren beharra du Oriok, mesede egingo dio plaza inguruari eta herriari. Pena da bost urte lehenago egiten

hasi ez izana, gerakina –remanentea– ukitu ezin zelako –orain bai, dirudienez–. Instituzioek trabak jartzen zituzten obra egiteko.

Ze fasetan dago proiektua gaur egun?

Egin behar diren azterketak eginak daude –geotektonikakoa, ingurumenekoa...–. Bordatxo tabernaren ondoko pasabidea zabalitzea, hasieran uste zena baino zailagoa dela ikusi da, eta horri irtenbidea bilatzen ari gara.

Proiektuak aurrera eginez gero, obrek zenbat hilabetez itxiko lukete plaza ingurua?

Oraingoz proiektua ez dago zehaztuta, baina zirriborroaren arabera, kotxeen bi norabideak errio ondotik bideratuko dira; beraz, plaza ez litzateke itxita geratuko. Hala ere, ezin da ezer ziurtatu oraindik.

Dikerako, Kofradiarako eta Kosta Tailer ingururako plana aurkeztu zenuten azaroaren 3an. Ezohikoa izan zen aurkezteko modua; besteak beste, agintean dagoen EAJ alderdia ez zegoelako bertan.

Bi zutabe nagusi ditu gaiak. Batetik, Plan Orokorrean Dike eta Paloten artean, Udaleko lau alderdiok Dike aukeratu dugu etxebizitzak egiteko gune egoki gisa. Bestalde, kofradiaren egoera kaxkarra begi bistakoa da. Guretzat, kofradia herriko nortasunaren parte garrantzitsua da, eta aspalditik gabiltza irtenbide egokia eman nahian.

Kofradiak eta Garate familiak bi gai horiei soluzioa planteatzen zien proiektua aurkeztu zigutenean, aukera egokia



iruditu zitzaigun arazoa konpontzen hasteko. Proiektua zuzena da, eta orekatua. Guri aurkeztu ziguten bezala, beste alderdiei ere erakutsi zietela esan ziguten, eta horregatik ez dugu ulertzen EAJ-k gerora agertu duen harridura. Dakigunaren arabera, proiektua EAJri aurkeztu zitzaionean Udaleko bi langile ere egon ziren bilera horretan. Garbi dago, Alkateak eta Hirigintzako batzordeburuak bazekiten proiektuaren berri.

Zaila al da gobernuan dagoen EAJ alderdiari proiektu estrategikoak proposatu eta negoziatzea?

Normalean, proiektu eta promesek oinarri ekonomikoa izan ohi dute, eta hor joko gutxi daukagu negoziatzeko. Arazo estrukturalak daude aurrekontuetan: 10 eurotik 8 Udaleko pertsonalean eta gastu arruntetan gastatzen dira, eta 1,5 euro diru laguntzetara bideratzen dira. Hau horrela izanik, proiektu gutxi negoziatu daitezke.

Etxebizitza bat izateko -erosi- alokatu- zailtasun ekonomiko handiak dituzte herritar askok. Zergatik ez dira alokairu sozial bidez kudeatzeko etxebizitzak egiten Orion?

Anibarko Portuan Udaletxeak dituen lokal batzuetan, alokairu sozialeko etxebizitzak egiteko asmoa aho batez onartua dago. Horretarako diru laguntzak ere badaude, baina gaia ez da mugitu. Ez dakigu zergatik.

Herri Antolamenduko Plan Orokorra zertan da? Zergatik dago geldirik?

Misterio bat da hori. Bide onetik eta abiadura egokian zihonan plana gure ustez, eta oraindik ez da aurrera eramán. Lana idazteko kontratatu zen enpresa ere behin baino gehiagotan kexatu izan da. Atzerapenaren ondorioz, idazketa lan hori 43.000 euro gehiago kostatuko zaigu. Hauek dira gure galderak: Zergatik atzeratu da? Nork hartuko du bere gainkostu

horren erantzukizuna?

Zergatik ez diozue eskatu EAJri prozesua amaitzeko?

Oposizioan gauden hiru alderdiok askotan eskatu diogu hori, hitzez eta idatziz. 2017ko aurrekontuak onartzeko baldintza bezala ere jarri zen Plan Orokorra aurrera eramatea, baina ez dute bete.

UDALA-POLITIKA

Bi urte egin ditu Joxe Angel Zalduak alkatetzan. Zein balorazio egiten duzu bere lanaz?

Legealdi hasierak sendoak izaten dira, mahai gainean asmo on eta proiektu askorekin. Alkateak Gipuzkoako soldata altuenetakoa jarri zion bere buruari, baina 2016an, bera batzordeburua izanik, ez zuen Pertsonaleko bilera bat ere egin. Bere lana ikusita, oposizioko hiru taldeon artean soldata jaitsi genion.

Askotan kexatu zarete, batzorde eta udalbatzarretan landuko diren gaien berri berandu izaten duzuelako.

Udal batean burokrazia lan handia izaten da, eta normala da une batzuetan presaka ibiltzea. Txostenak hilabete lehenago eginda izanik, batzorderako bi egun falta direla bidaltzen dizkigute oposizioko taldeoi, eta hori da onartu ezin dena. Sarritan gertatzen da, gainera.

Bestalde, zenbait mozioren bozketan ez parte hartzea erabaki zuen Orain plataformak. Zer dela eta?

Galdera hori ez nuke horrela planteatuko. Erabaki hura mozioren eta kontra-mozioren joko aputzeko hartu genuen; guk, Udalbatzarretan azken momentuan aurkezten ziren gaiak alde aurretik batzordeetan aurkeztu eta erabakitzea eskatzen genuen. Dena den, mozioren bozketetan parte hartzen jarraitzen dugu.

“Plazan egin nahi den obraren beharra du Oriok.”

“Plan Orokorra bide onetik zihoan, baina ez da aurrera atera oraindik. Ez dakigu zergatik.”

“Aurreko legealdian kanpinaren aldeko apustua egin genuen, eta orain fruituak jasotzen ari gara.”

GIZARTEA

Arozena eraikinean zaharrentzat egoitza ekiteko proposamena atzean geratuta, ba al da bertarako beste proiekturik?

Alderdi batzuek, hauteskunde garaian promesa koloretsuekin propaganda handia egiten dute. Sarritan, proiektu horiek ondo landu edo eztabaidatu gabeak izaten dira. Aspalditik dabil egoitzaren proposamena Udalean, baina guk dakigunez, inor ez da joan Arozenara, *in situ* egin daitekeena baloratzera. Horrela daude gauzak.

Gizarte zerbitzuen saila parekidetasun politikena ere izango da aurrerantzean.

Gogoia eta interesa egonik, herriko eragileen eta Udalaren artean gauzak egin daitezkeela erakusten duen adibide ona da hau. Gizarte zerbitzuetako teknikari berria kontratatzeke pleguak lantzen ari ginela, herriko eragile batek profileen parekidetasun gaiak txertatzea eskatu zigun. Talde politiko guztiek ondo ikusi zuten ekarpena, eta lanpostua eskari horrekin ere atera da.

Orain plataformak zein ikuspegi du parekidetasunaz?

Behar beharrezkoa ikusten dugu parekidetasuna garatzeko politika aktiboak bultzatzea.

TURISMOA

Zifra onak eman ditu aurtengo udan Orioko Kanpinak.

Bai. Aurreko legealdian apustu nabarmena egin genuen kanpinaren alde, eta orain horren fruituak jasotzen ari gara. 2017an 550.000 euroko gastua eginda, 972.000 euroko diru-sarrera (fakturazioa) izan dugu. Martxan jarritako lan prozesu guztiak emaitza onak ari dira ematen. Jende askoren ahalegina dago kanpinaren martxa onaren atzean.

Orain taldearen iritziz, Oriorentzat zein garrantzia du turismoak?

Azken hamarkadetan aldaketak eman dira herriaren motor ekonomikoan. Arrantza, adibidez, izugarri jaitsi da, beste sektoreetako lan mota batzuekin batera. Aldiz, zerbitzuen alorrak hartu du indarra; turismoa oso garrantzitsua bihurtu da herriarentzat.

Oriok nahikoa turista erakartzen al du?

Horri erantzun aurretik, zein turismo eredu bultzatu nahi dugu erabaki behar genuke. Herriko ostalari eta merkatarien arabera, ez dugu nahikoa turista erakartzen. Hori horrela da, uda partean herrian mugimendu gutxi izaten baita. Baina hau, ez da Udalaren ardura soilik. Guk egin beharko dugu ahalegina, baina zerbitzuak eskaintzen dituztenek ere bai. Bezeroak gero eta zorrotzagoak dira kalitatearekin. Lan ildo garrantzitsua da Orion turismoarena. Udalak, merkatariek eta herritarrek elkarlanean jorratu beharko dugu.

Garai batean, jende gehiago izaten zen Antilla hondartzan uda garaian. Turismoari dagokionean, asmatu al da eraldaketarekin?

Gauza bat argi dago: ez dugu lehengo hondartzako martxa eder hura, galdu egin da. Alde horretatik begiratuz, ez da asmatu.

Zein bereizgarri du Oriok? Edo, aurrera begira, bereizi behar al du moduren batera turismo mota jakin bat erakartzeko?

Oriok hondartza eta beste gauza batzuek gain, bi elementu nagusi ditu beste herriengandik bereizteko. Batetik, Santiago bidea. Etekin gehiago atera behar diogu. Pasabide zuzen bat potentziatu beharko genuke, erromesak herritik pasatzeko. Bestalde, errioa daukagu. Aukera asko eskaintzen ditu turismoari begira. Txurruka inguruak ere bai. Herriak turismo lasaia erakartzeko potentzial handia dauka.

Turismo teknikari eta Kanpineko zuzendari plazak betetzeko lehiaketak martxan daude. Aurreikusitakoa baino beranduago egin dira deialdiak.

Aurreko legealdian, turismo teknikaria aukeratzeko lehiaketa ez egitea erabaki genuen, legealdi aldaketa harrapatzen zuelako bete betean. Lehiaketa Udalean sartzen ziren agintari berrien esku uztea erabaki zen, garbi jokatzeko aldera. Argi dago hor akatsa egin genuela, hiru urte galdu ditugulako. Legealdi honetan orain gutxi arte ez da gaia landu, oposiziotik askotan eskatu arren.

Mutiozabal ontziolak zer eskainiko dio herriari?

Erriorearen beste aldeak eraldaketa eskatzen zuen, eta ari gara lanean. Mutiozabal herriko ondarearen erreferenteetako bat da, eta eraikinari bizia emanda, gure historiaren zati bat bizirik mantenduko dugu. Bestalde, lehen aipatu bezala, errioiari etekina ateratzen hasteko aukerak eskainiko ditu. Potentzial handia du erriko bazter horrek.

Udan Aldundiaren autobus turistikoa pasa zen Urola Kostatik, baina Orio ibilbidetik kanpo geratu zen. Zergatik?

Batzuetan nabari geratzen da instituzioen arteko koordinazio eza. UKUEn badira teknikariak, udaletan ere bai, baina ez dute harreman zuzenik. Informazioa ez da behar beste trukatzeko, eta batzuetan ez gara elkar ulertzen. Horrelako kasu batengatik geratu zen autobusa Oriotik pasa gabe.

KULTURA-EUSKARA

Aurreko legealdiarekin alderatuz, kultur agenda dezente mehetu da. Zein da arrazoi nagusia?

Aurreko legealdiko kultur zinegotzia dinamizatzaile petoan eta euskalgintzan eskarmentu handia zeukan. Zorte handia izan genuen bera Udalean izanda. Hortxe, azalpena.

Oraingoz, legealdi honetan ez da euskara sustatzeko egitasmorik aurkeztu Udaletik.

Ez, eta goazen martxan, ez da halakorik espero. Hala eta guztiz ere, aurreko legealdian aurrerapauso handi eta sendoak eman ziren alor horretan.

INGURUMENA

Motondo biziberritzeko diru laguntzari uko egin zenioten bere momentuan. Nola dago gaia orain?

Legealdi honetan, ez dugu gaiak behin ere hitz egin. Gauzak ez dira galderan planteatzen diren bezain simpleak. Guk proiektuaren alde bozkatu genuen, eta horri esker atera zen aurrera. Etorri zen 400.000 euroko diru laguntza hari, ez genion uko egin, baina ez genuen bere horretan onartzeko inozentzia izan. Zergatik? Proiektuaren lehen zatia diru kopurua bakarrik zelako, eta hurrengo faseetako laguntza ez zutelako bermatzen –guztira 3 milioitik gorako kostua zuen–. Diru hori onartzeak beste erantzukizun batzuk hartzea ere suposatzen zuen. Gure ustez, Motondoko proiektuaren ardura ezin du Orioko Udalak bakarrik hartu, beste instituzioek ere egin behar dute kargu. Herriak bakarrik aurre egiteko dimentsio handiegia du.

Duela urte batzuk egindako azterketaren arabera, hiru faktore nagusik eragin zuten Antillako hondarraren egoera kaltetzen: kanpoko barra, draga eta malekoiko obra guztia. Draga ez da egiten dagoeneko. Beste neurririk hartu al daiteke aurrera begira?

Dragatze lanak geratu zirenetik, hondarraren egoerak hobera egin du. Gure ustez, hobetzen jarraituko du gainera.

Batzuk diotenez, kanpoko barrak luzera erdia kenduta, berdin beteko luke bere funtzioa. Horrela, itsasadarreko uraren eta hondarraren kalitatea hobetu egingo liriteke. Herriaren motor ekonomikoan arrantzak geroz eta indar gutxiago badu, eta turismoak gehiago, halako zerbait planteatu al daiteke?

Adituek kanpoko barrak bere funtzioa berdinean beteko lukeela ziurtatuz gero, ez zait astakeria iruditzen. Hala ere, horrelako zerbait aurrera eramateko eskumena ez da Udalarena bakarrik. Ziurrenik, beste instituzioekin egin beharrekoa izango litzateke lanik zailena.



Hondartzako obrarekin ondare ekologiko oparoa galdu al du Oriok?

Bai, hori begi bistakoa da. Orain dela hilabete batzuk, gaiaz dugun iritzia argitaratu genuen **KARKARAN: hondartzako balorazio orokorra negatiboa da. Alde onak eta txarrak balantzan jarrita, bigarren hauek gehiago dira. Gaur egun obra hau egin beharko bagenu, gerora ikusi denagatik, ez dugu uste herriak onartuko zukeenik.**

GALDERA PERTSONALAK

Nolatan sartu zinen herri politikan?

Udalak bere egin beharrei erantzuten ez ziola eta, aspertuta, herritar talde batek bilera pare bat egin genituen. Hor jaio zen Orain plataforma. Taldean eroso sentitu nintzen hasieratik, eta jendea lanerako prest ikusten nuen, gogo handiarekin. Hasiera batean, ez neukan taldeko lehen lerroan posizionatzeko asmorik, baina denborarekin, taldeak egokitzen izan ditu, eta aurrean bukatu dut. Miriamek lan oso eraginkorra egiten zuen, orekatua, eta zaila da bera ordezkatzeko, baina eroso sentitzen naiz taldearen buruan. Beste kideen babesa daukat, eta Miriamek berak asko laguntzen dit. Iñigo Arrutiren lana ere goraiatu nahi nuke, berak ere urrats handia eman baitu aurrera.

Esker onekoa al da udaleko zinegotzi izatea?

Baietz esango nuke. Kritikak jasotzen dituzu, baina errespetuz eginak badira, ez dago arazorik. Kanean uste baino jende gehiagok geratu nau, egindako gauzengatik zorionak edo animoak emateko.

Uste baino denbora gehiago edo gutxiago kentzen dizu Udaleko lanak?

Zinegotzi postua onartzean, banekien non sartzera nindo-

an. Zorionez, emazteak asko errazten dit Udalean orduak sartu ahal izatea, eta lan ordutegiarekin ere ondo moldatzen naiz.

Erraza al da kanean herritarrei entzundako iruzkinak, galderak, proposamenak... Udalera eramatea?

Saiatzen gara kanean jasotzen ditugun kontuak plenoetara eramaten, baina ez da erraza. Hala ere, Udalbatzarrak irekiak dira, eta edozeinek du hara azaldu eta galdera zuzenak egiteko aukera. Normalean, bospasei entzule bakarrik izaten dira bertan.

Udala eta herritarrak elkartzea zaila al da?

Bai. Bi gauza dira ondo eramanezin ditudanak: batetik, Udalak batzuetan herritarrak bezero edo aurkari gisa ikusten ditu. Niretzako, herria da Udala, herritarren nahiak betetzeko gaude gu. Horretan sinesten dut.

Bestalde, administrazioaren abiadura motelak ere amorruta sortzen dit. Ez dut ulertzen zergatik moteltzen diren hainbeste prozedura batzuk. Konbentzitura nago, benetako borondatea balego, askoz ere azkarrago egingo genituzkeela gauzak. Badaude hori frogatzen duten adibideak

Bukatzeko, zerbait gehitu nahi al duzu?

Azken urteetan, politikari asko sartu dituzte kartzelan ustelkeria kasuengatik. Gasteizko Kontu Epaitegiak 2014ko Orioko Udaleko kontuak aztertu zituen, agintean Bildu eta Orain geundenean. Azterketaren ostean pasa ziguten txostenaren arabera, gestioa bikaina izan zela azpimarratu zuten. Horrelako albisteak ez dira herrira iristen; kontrakoa, sarri notizia txarrak bakarrik ematen dira argitara, eta horrela, zaila da Udala eta herritarren artean harremanak sendotzea.



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerrri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



borja agirresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
kostoenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

arkitektura



6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com



Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)



sinergia

FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

Katu

MORIA

ΟΡΘΟΠΕΔΙΚΟ ΚΕΝΤΡΟ


ESTROPALARI, 10
20810 ORIO

Larrialdiaok
668 89 11 29

www.katumoria.com




BODEGAS



2000 BARRIO A 4360
Tel/Fax 943 89 41 38
www.bodegasgailur.com

Amakur Etxerria

ZUDUGARAI



Galariko Triakolina

Tel. 943 83 03 88
Fax 943 83 54 52
bukolzubogara@bukolet.net
www.bukolzubogara.com

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



GARBIÑE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
www.facebook.com/rosadegandorra

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAI

Garbiñe

Arregi

Moda de osagarriak

Herriko plaza, 5
635 716 265

pausatutako goizez zabaltze!

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



55eko deskontua familia egarlen txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 argine/jantziak



Zaragueta

Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



70eko hamarkadaren lehen erdian, horrelako garaipen asko eskuratu zituzten arraulari oriotarrek.

Aliron gatazkatsua

**Oroimenaren
kutxa**

Z iabogarik gabeko traineru-estropadak ez dira sarri izaten, kostako herri batetik besterako itsas zeharkaldiak ez dira oso ohikoak. Baina historian izan dira batzuk. Haietako hiruren berri duzue hemen, hirurak ere oso bitxiak:

Horrelako batean idatzi zuten Orioko estropalariek arraularen historiako pasarterik loriatsuenetako bat. 1970eko irailaren 20an izan zen; egun hartan Getariatik Donostiara arrau egin zuten, itsaso zabalean, estropada jokatu zuten lau ontziek. Baina ez ziren denak batera abiatu, ordura arte inoiz ez bezala, elkarririk emanda lehiatu ziren: aurrena Donostia abiatu zen; 1'15" geroago, Oiartzungo Zuberoa; 1'50"era, Lasarte; eta 3'25"era, Orio.

Altxerri patroiz zuten traineruak beste hiru ontziak aurreratu eta aurrena sartu zen Donostiako badian, besteei sekulako puska kenduta: bigarren izan zen Lasarteri sei minutu eta 30 segundo, eta azkenari, Zuberoari hamar minutu eta erditik gora (denbora errealean).

Getaria - Donostia hura 80 urte lehenago Lekeitiotik Getariara egin zenaren oroimenez antolatu zuten, 1890-12-2an Ondarroak eta Donostiak jokatu zutenaren oroigarri. Estropaden historiako lehiarik ospetsuenetakoa izan zen hura. Ondarroak Bilboko estropada irabazi zuen urte hartan eta 'Kantauriko txapeldun' izendatu zituzten Bilbon; donostiarrak, berriz, Donostian nagusitu ziren. Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait erakunde eta elkarte elkarririk zuten hasi ziren; eta orduko egunkariak, giro lehiatsu hura hauspotzen.

Erronka hartan sekulako dirutzak jokatu zituzten ondarrutarren eta donostiarren jarraitzaileek. Apustu ofiziala 25.000 pezetakoa zen, alde bakoitzetik (dirutza handia, orduan); baina, diotenez, 300.000 pezetatik gora jokatu ziren trabesetan bi herrien artean; baserria eta idi pareak jokatu zuenik ere izan zen. Luis Karril patroiz zutela, donostiarrak nagusitu ziren Lekeitiotik Getaria bitarteko itsas lasterketan.


Donostiarren garaipenaren ondorioz, Luis Karril patroia arraularen urrezko orrietan sartu zuten. Ondarrutarren patroia Anbrosio Bedialaunetak, berriz, jaioterria utzi behar izan zuen eta Castrora joan bizitzera, betiko. Ezin izan zuen eraman herrian sortu zen giroa. Luis Karrilen bukaera ere ez zen ona izan: handik bi urtera, 1892-10-19an haren arrantzantzia hondora joan eta ito egin ziren ontziko 9 arrantzaleak.

Donostiarren kontrako lehiarako grina hura bi urte lehenago jokatu zuten beste estropada batek ekarriko zien ondarrutarrei: 1888an, Ondarroak San Pedroko traineruaren kontra jokatu zuen itsaso zabaleko lasterketa, Getariatik Donostiara. Erronka hura ondarrutarrek irabazi zuten; eta estropada ondoreneko egunetan oso istorio bitxia gertatu zen: Deba eta Mutrikuko herritarren arteko haserre eta iskanbila.

Xelebrea ere bada, izan ere ez Mutriku eta ez Deba ez baitziren izan 1888ko estropadan. Lehia Ondarroak eta Pasai San Pedrok jokatu zuten, eta liskarra batez ere mutrikuarren eta debatarren artean sortu zen. Nola izan zen hori?

Ondarrutarrek, garaipena behar bezala ospatzeko, festa nahi zuten herrian; eta horretarako, Debako musika-banda. Debakoak konforme ziren hara joateko. Baina hara joateko, Mutrikutik pasatu behar, eta mutrikuarrek nahi ez. Gipuzkoa eta Bizkaia arteko muga handia zen haientzat: Mutrikuko gipuzkoarrek ez zuten nahi inondik ere bizkaitarrek irabaztea, eta apustuak dirua sanpedrotarren alde jokatu zuten, eta galdu. Eta erabaki zuten ez ziotela pasatzen utziko Debako bandari.

Esan eta egin: Debakoak hurbildu zirenean, harrika hartu zituzten. Ondarrutarrek debarrak babestera jo zuten Mutrikura. Haien ere harrika hartu zituzten mutrikuarrek, mendian ezkutatuta. Mikeleteek eta guardia zibilek bertaratu behar izan zuten Mutrikuko gatazka hura baretzera.



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: - 943 572 083
FAX: - 943 571 190
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com



AIRIATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

LEUNDA OKINDEGIA

ORDUTEGI ALDAPAKETA 943 89 00 67
asteleheneretik-larunbatara igande eta jai-egunetan
7.00-13.30 / 17.00-20.30 7.00-13.30

KARELA
Kiroldegia

EZ EZAZU GEHIAGO PENTSATU;
EGUBERRIETAN OSASUNA OPARITU,
KARELA OPARI KUTXEKIN.

PACKak: Elektroestimulazioa + Nutrizioa +
Prestakuntza individual personalizatua...
* Informazioa Kiroldegiko hamarran.

943894428



BPXport
www.bpxport.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoar: 943 83 59 00

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Etxeko erretzina mota guztiak
tableak, bainu gelak, igeltseria...

Ander Zinkunegui
667 740 279

PERTSIANAK

A K O M A Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

MENDIZABAL
AROTEGIA

Nearriko arnairak
eta gortelak

943 831 175 Altzerri bidea
645 708 491 Bati-Ajai etxea
mendiarotegi.net 20810 Aia-Orto

ETXKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA

BODEGON SARASUA
EKRETTIGIX



Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO • Tel.: 943 83 00 05

HELAGARRIA
PATXI OLIDEN
ERRETTIGIA

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





Agur zuzendari, ongi etorri irakasle

Juanjo Zubizarreta

Zaraguetako zuzendari ohia eta irakaslea

Juanjo Zubizarreta, *Xubi*, gure eskolako zuzendari izan da azkeneko zortzi urteetan. Oriotar petoa izanik, urte horiek nolakoak izan diren kontatuko digu.

Zenbat urte egin dituzu Zaragueta eskolako zuzendari?

Eskolara ailegatu eta hirugarren urtean jarri nintzen zuzendari, guztira zortzi urte egin ditut.

Nola erabaki zenuen zuzendari izatea?

Aurreko zuendariak, Marije Azkuek, bost urte bete zituenean zuzendari niri proposatu zidan kargua hartzea. Oriotarra izanik ea animatuko nintzen aipatu zidaten. Agian, une egokia zela iruditu zitzaidan eta animatu egin nintzen.

Zeintzuk dira zuzendari izan zaren urteetan eskolak izandako aldaketarik haundienak?

Bi izan dira. Alde batetik, DBH eskolan ezartzea eta bigarrena eskolaren eraikina haunditzea, azken aldaketa hau bi alditan izan da.

Zein da urte hauetako lorpenik handiena?

Lehen aipatutako bi aldaketa horiek, eskolarentzako oso positiboak izan direla uste dut. Gainera eskolan espazio berri horiek behar genituela oso garbi ikusten

genuen. DBH ezartzeak urte gutxitan asko handitu digu ikasle eta irakasle kopurua eta aldaketa horri erantzun bat eman behar genion espazio aldetik.

Zeintzuk izan dira zailtasun edo oztoprik handienak?

Udalarekin eta Hezkuntza sailarekin gure beharrak eta proposamenak onartzeko egin beharreko lana. Bakoitzak bere ikuspuntua defendatzen du eta prozesu horretan gorabehera asko izan ditugu.

Zertan datza zuzendari baten lana?

Azken finean ikastetxe bat kudeatzea da. Ikasleak, irakasle, guraso, hezkuntza saila, udala... ikastetxe baten egunerokoa pertsona askok osatzen dute.

Zein aholku emango zenioke zuzendari izan nahi duen norbaiti?

Gogo handirekin hasteko eta pazientzia handia izateko.

Zuzendari izateak bere alderdi onak ere edukiko ditu... zeintzuk?

Batez ere jendea nolakoa den jakiteko benetan oso aproposa da.

Zer sentitzen zara zuzendari edo irakasle?

Irakasle dudarik gabe.



Magali Agote
Nerea Quintanilla

Menpekotasun larria

Gaur egun, teknologiaren garapenari esker, denok dugu gailuren bat: mugikorra, tableta, telebista, ordenagailua... Horiek guztiak askoren bizitzan informatzeko eta komunikatzeko ezinbesteko tresna bihurtu dira. Eta horrek baditu, noski, onura adina arrisku.

Askotan denboraren zati handi bat mugikorrarekin jolasten igarotzen dugu, eta kalean lagunekin egon arren ezin ditugu bakean utzi.

Gailuen menpekotasun larria sortu da: lo egin aurretik, familiar gaudenean, bazkaltzen dugun bitartean, festa batera joaterakoan e.a. Dena berekin egiten dugu. Eta okerragoa dena, dena sare-sozialetan publikatzen dugu, edozeini ateratzen diogu argazkia sareetara igotzeko.

Garai batean, gure guraso eta aitona-amonek ez zuten mugikorren beharrik; kalean jolasean, hau da, sokasaltoan, futboleantab. igarotzen zuten arratsaldea. Orain berriz, ia ez gara jolasten mugikorren menpe gaudelako.

Gure ustez, gauza elektronikoa bakean utzi eta familiarekin edo lagunekin denbora gehiago igaro beharko genuke.

2018ko udal aurrekontuak: hirigintzako inbertsioak



Plazaren egokitzapena da Udalak 2018rako mahai gainean dituen lan nagusietako bat. KARKARA

2018ko aurrekontuak urte hasieran onartuko dituzte, baina Udala hasi da dagoeneko horiek lantzen. Urtero, udal arkitektoak egin beharreko lanen zerrenda bidaltzen die talde politikoei, aurrekontuetan sar ditzaten. Udal taldeek aukeratzeko dute, gero, proposamen horietatik zein sartuko diren aurrekontuetan.

Legealdiko lan nagusiak

Legealdi honetan, 2015etik aurrera, egindako inbertsioetatik hauek izan dira garrantzitsuenak:

- 2015ean euskaltegia: 25.000€
- 2015ean Arrantzale kaleko bidegorria. Inbertsioa: 48.500€
- 2016an Antxiola kaleko irisgarritasuna bermatzeko lanak. Inbertsioa: 78.736€
- 2016an Itxaspe bidea konpontzea. Inbertsioa: 20.000€
- 2016an Etxeluze eraikina 1. fasea. Inbertsioa: 139.000€. 2017an 2. faseko inbertsioa: 90.000€
- 2017an Mutiozabal ontziola eraberritzea. Inbertsioa: 139.771,55€

-2017an komun publikoa Diken. Inbertsioa: 60.000€

-2017an Zaragueta handitzeko lanak. Inbertsioa: 469.819,61€

-Kiroldegiko inbertsioak: 102.000€

-Salmaristi bidea. Inbertsioa: 23.000€

2018rako aurreikuspenak

Hiru dira, hasiera batean, 2018rako Udalak mahai gainean dituen lan nagusiak. Batetik, Aritzaga eta Herriko plazaren egokitzapena egitea aurreikusuten da eta kostua 1.700.000 euro ingurukoa izango da. Bestalde, Estropalari kalea berrurbanizatu behar da. Lan horretarako inbertsioa 115.000 ingurukoa izango litzake. Azkenik, Mutiozabal ontziolako eraberritze proiektuaren bigarren fasea, 100.000 euro inguruko inbertsioarekin.

Bestalde, hauek dira bulego teknikoak 2018ra begira proposatutako inbertsioak:

Kaleetan:

-Antxiola kaleko terraza bukatu eta murala egitea: 40.000€

-Kale nagusiko konponketak: 6.000€

-Hondartza bidean desjabetzak bigedorria egiteko: 30.000€

-San Martingo argiteria berritzea: 60.000€

-Goiko Kaleko parkeko zorua berritzea: 20.000€

-Ikastola- Arantzazuko Andra Marin konponketak: 35.000€

-Aita Lertxundiko espaloia- Dikeko Aldapatik Aritzagara: 25.000€

-Txankako sarreran Abaromendiko espaloia errematea: 15.000€

-Anibarko portuan saskiak ate-saskiengatik ordezkatu: 15.000€

-Iturbide kalea errepasatu: 10.000€

Lurzoru hiritarreen:

-Agerre bidea egokitu eta konpondu: 25.000€

-Benta bideko partxeoa- zenbait tokitan biondak jarri: 15.000€

Udal eraikinetan:

-Kultur etxeko fatxada margotu, miradoreak berritu eta usoen aurkako pintxoak jarri: 42.000€

-KTA eraikinean igogailua jarri eta iparraldeko fatxada margotu: 33.000€

-Udaletxeko eraikineko aleroa margotu: 10.000€

-Musika eskolako berogailu sistema berritu: 18.000€

-Mutiozabal egokitzeko II. fasea: 100.000€

-Mendibeltz zelaiko galdara berritu eta ur hodiak hobetu: 40.000€

-Mendibeltz zelaiko argiak aldatu energia aurrezteko: 38.000€

Egitasmoak idaztea

-Arrantzale bukaera- ikastola sarbi-dea ideia lehiaketa eta proiektua: 22.000€

-Txanka Hondartzako espropiazioa inskribatze: 6.500€

-Frontoiko gunea garatzeko dokumentuen idazketa: 18.000€



Hirigintza inbertsioak 2018ko aurrekontuetan

Hirigintza alorrean 2018ko aurrekontuen baitan udal taldeek ditugun asmoen inguruan lerro batzuk idaztea tokatzen zaigu. Aurrekontuen diseinuan murgilduta gabiltza udal taldeak, ez soilik hirigintza alorrean, ikuspegi integrala behar dute aurrekontuen diseinu egokiak. Hala ere, hirigintza alorrean, erronka nagusia Hirigintza Plana -PGOU- definitu eta onartzea izango da. Plangintza hau 2018ko urtea amaitzerako behin-behineko onarpena emateko moduan egotea da EAJ-ren asmoa. Behin betiko onarpena, 2019an izango litzateke. Plan Nagusi honetan Munto eta Zabalguneko (Frontoia) garapenak gauzatzeko behar diren pausoen hasiera litzateke. Herriko hainbat guneetan (Areizaga eta Estropalari kaleak) behar dituzten saneamentu obrak burutu eta amaitzeak ere lehentasunezko iniziatibak dira. Horretaz guztiaz gain, Anibarko Portuan gazteei zuzenduko diren alokairu etxebizitzaren proiektua gauzatzeko litzateke 2018rako aurreikusten dugun proiektu estrategikoa.



Orain

Behar asko versus kapital gutxi

Inbertsioa horrela definitu daiteke: kapital bat toki egokian jartzea etorkizunean etekinak izateko. Beraz, kapitala edukita zein toki egokian jarri aukeratu behar da. Udaletxearen kasuan, jakinda zein behar dituzten herritarrek edo zer eskatzen duten aukeratu behar da etekin onena izateko.

Orioko Udaletxean arazo estruktural bat dago urteak joan eta urteak etorri ez dena konpontzen: kapital oso txikia gelditzen da inbertsioetarako. Urtero aurrekontu guztiaren %80a pertsonal eta gastu arruntean gastatzen da eta %15a herriko kirola eta kultura taldeei diru-laguntzetan joaten da. Azkeneko urteetako aurrekontuek zazpi milioi inguru eduki dituzte eta %5era ere ez da heldu inbertsioetarako gelditu dena. Eskerrak 2011-2015 legealdian Udala Gobernuan kanpo gauden taldeek askoz ere malgugogokatzeko dugula. Dauden beharren zerrenda luzea ikusita gutxi batzuk egingo dira eta asko ezin izango dira egin



EH Bildu

Paperetik errealitatera

2018ko inbertsio-plana eztabaidatu aurretik ondo legoke 2017koarekin zer gertatu den aztertzea. Aurtengo aurrekontuak onartzean hainbat konpromiso hartu ziren eta beste hainbat inbertsio mahai gainean jarri. Azarora iritsi gara etakonpromisoak eta inbertsioak eskuko behatzekin kontatzeko moduan gauzatu dira. Eskolakoa gauzatu da joan den urteko akats bat izan zelako eta Dikeko parkeko komuna jarri da. Bi lan horiei garrantzirik kendu gabe, esan nahi dugu zerrenda hartan 17 ekintza zeudela aurreikusita. Oso garrantzizkoa den eta adibide gisa balio lezakeen bat ekarriko dugu hona: 2018tik aurrera zabor-bilketaz udal elkarte arduratuko da eta, horretarako, gaur egungo bilketa-guneak egokitu egin behar dira... 2018aren atarian gaude eta lan hori egiteko dago. Paperean zerrenda egitea gauza erraza da, baina gero horiek errealitate bihurtzea dator, eta horretan agerian geratzen da gaur egungo gobernu taldearen lan eskasa. Gero esango dute errua oposizioarena dela.



PSE-EE

Aita Lertxundi, Anibarko Portua, Anbulategia

Orioko PSEk, aurreko urteetan bezala, kaleak konpontzeari eta herriko instalakuntzak hobetzeari ematen dio lehentasuna. 2016ko aurrekontuetan Antxiola kaleko irisgarritasun eta argiteria arazoak konpontzea proposatu genuen, baita lortu ere. 2017an Estropalari kalea konpontzea proposatu genuen, izan ere, kale horrek arazo larriak ditu saneamenduan, argiztapenean eta espaloietan. Urte amaieran hasiko dira lanak. 2018rako PSEk Aita Lertxundi kalearen konponketa beharrezko inbertsio bezala proposatuko du. Oso hondatuta dago kale hori eta konpondu beharrezko saneamendu arazoak ditu, bizilagunek denbora dezente daramate konponketa eskatzen. Anibarko Portuko baxuetan gazteentzako alokairuzko etxebizitza proiektuan ere inbertitu behar da 2018an. Azkenik, anbulategiko sarrerako atea lehenbailehen aldatu beharra dago, automatiko bat jartzeko. Orain dagoen atea lotsagarria da, osasun zentro batean hain beharrezkoa den irisgarritasuna zailtzen baitu.



Ekonomia

Black week kanpaina abiatuko du Arkupe merkatari elkarteak

Ostiralean, azaroaren 24ean, abiatuko du Arkupe merkatari elkarteak Black week kanpaina. Deskontuak eta zozketak izango dira merkatari elkarteko kide diren dendetan, eta kontzertuak ere antolatuta dituzte. Ostiralean bertan Antilla pareko plazan izango da lehenengo kontzertua, Frank Blackfield taldearen eskutik. Abenduaren 1ean, aldiz, Low Ridersen emanaldiarekin emango diote itxiera kanpainari.

Honakoak izango dira Black week kanpainan parte hartuko duten establezimenduak: Lizaso dekorazioa, Uranga burdindegia, Izarra etxetresna elektrikoak, Rosana argazki estudioa, Orio hizkuntzak, Egarmendia aholkularitza, Olariaga aholkularitza, Expo elektrizitatea eta Zipristin inprimategia.



Gizartea

Odol emaien intsigniak eta diplomak banatu dituzte

Urnietan elkartu ziren, urriaren 29an, Gipuzkoako Odol Emaien Oriako ordezkariak urteroko intsignia eta diploma banaketa egiteko. Urnietako Oianumen elkartu ziren eta intsigniak banatu ondoren elkarrekin bazkaldu zuten odol emaleek. 25 emanaldiko intsignia Patxi Urangak, Martin Urretabizkaiak, Xabier Satrustegik, Nekane Gorostidik eta Jose Antonio Rodriguezek jaso zuten. Urrezko intsigniak, berriz, Maribi Agirrebeñak, Maria Eugenia Atxegak eta Txomin Galarragak jaso zituzten, 40 emanaldigatik lehen biak eta 50engatik hirugarrenak. Azkenik, Oriako odol emaien ordezkariak gogorarazi nahi die herri-tarrei abenduaren 12an izango dela hurrengo odol ematea.

OSPAKIZUNA



30 urte elkarrekin bazkaltzen

Hogeita hamar urte pasa badira ere, Zaragueta eskolako 1987ko guraso elkarte urtero urtero elkartzen da oraindik, elkarrekin bazkaltzeko. Pasa den azaroaren 18an, larunbatean, elkartu ziren azkenengoz, eta momentu ederrak pasa zituzten elkarrekin. Ea urte askotan elkartzen jarraitzen duten!



Kirola

Abenduaren 16an izango da Orioko Herri Lasterketa

Urtero bezala, Herri lasterketa antolatu du Orioko Herri Ikastolak. Abenduaren 16an izango da lasterketa, 16:30ean hasita, eta 10 kilometroko ibilbide laua egingo dute lasterkariak. Ibilbideak bi itzuli izango ditu: lehen itzulia, luzeak, 7 kilometro izango ditu eta, Ikastolatik abiatuta, hondartzara eta Ortzakara joango dira parte-hartzaileak. Bigarrena, laburra, 3 kilometrokoa izango da, Ikastolatik hondartzarainoko joan eta itzulia.

Abenduaren 15eko 22:00ak arte egongo da irekita izena emateko aukera; 12 euro ordaindu beharko dute txip horia dutenek eta 13 euro ez dutenek. Gehienez 400 lasterkari hartu dezakete parte. Dutxa eta kontsigna zerbitzuak ere izango dira parte-hartzaileen eskura, Karela kiroldegian lehenengoa eta Ikastolan bertan bigarrena.

Herri lasterketaren aurretik, larunbatean bertan, haurrentzako lasterketak ere izango dira, Ikastolatik abiatuta. 15:45etik aurrera izango dira lasterketak eta hiru egingo dira: 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoek 1000 metro egingo dituzte, 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoek 600 metro eta 2010 eta 2011n jaiotakoek 300 metro.

Haurren lasterketako izen-ematea doakoa izango da eta irteera puntuan egin beharko da 14:30etik 15:30era.

Hezkuntza

Urriaren hasieran bukatu ziren Zarageta eskola handitzeko lanak

Urriaren 11n bukatu ziren Zarageta herri eskola handitzeko lanak. Lanik handienak udan egin dira eta irailaren hasierarako erabilgarri zegoen behe-oineko jangela. Gainerako lanak pixkanaka osatu dira. Egindako obraren bitartez, lau gela berri sortu dira — bi, solairu bakoitzean — eta, gainera, eskolako jangela handitu da.

Eskola handitzeko lanarekin batera Udalak, premia ikusita, beste zenbait konponketa ere egin ditu bertan: eraikinaren teilatu hegalk konpondu, terrazo zaharra kristalizatu, umeen jolas parkeko lurra berritu eta kanpoko biltegia handitu.

Lanak Moyua enpresak egin ditu eta 469.819,61 euroko kostua izan dute guztira (BEZa barne). Lan horiek egiteko, Eusko Jaurilaritzaren diru-laguntza jaso du Udalak: kostuaren %60.

Kirola

Easo Politeknikoak hitzarmena sinatu du Berdin-Berdin elkartearekin

Hitzarmenaren arabera, Jarduera Fisikoen Goi Mailako graduko 1. ikasturteko ikasleek aukera izango dute beren praktikak Berdin-Berdin kirol inklusiboko elkartearen egiteko eta, hartara, desgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboarekin egiten dugun lana ezagutzeko.

Berdin-Berdin kirol elkartearen hainbat kirol modalitate eta jarduera lantzen ditugu: igeriketa, pilota, psikomotrizitatea... eta horietan laguntzeko aukera izango dute Easo Politeknikoko ikasleek.

Lehenbiziko aldia da elkarteak eta politeknikoak hitzarmena sinatzen dutela eta bien artean arnas luze-ko proiektu berritzailea abiatu nahi dute.

Goiko argazkian ikusten den bezala, dagoeneko hasita daude ikasleak praktikak egiten gure kirolariek. Urrian hasi ziren igerilekuan eta azaroaren 4an egin zuten lehen entrenamendua pilotalekuan.



Kultura

Eusebio Arzadun garaile XVII. Kintopeko Idi Probatan

Urriaren 31an hasi eta azaroaren 6an amaitu ziren XVII. Kintopeko Idi Probak Aian. 15 parte hartzaile izan ziren guztira, eta Eusebio Arzadun aiarrak irabazi zuen, 58 plaza lortu ondoren. Saizar sariketarako proba puntuagarria izan zen, eta Gipuzkoako Kirol Federakuntzak izan zuen probak kontrolatzeko ardura. Iñaki Olidenez -Ori- hirugarren postua lortu zuen 53 plazarekin, eta Etxetxok -Zumaia- zortzigarrena, 47rekin.

Orio

Azaroak 25

■ Azaroaren 25ean, emakumeengana-ko indarkeriaren kontrako eguna. 11:30ean, zapata gorrien ekimena plazan; 13:00etan kontzentrazioa plazan eta 16:00etan mural margoketa Ibai Ondo kaleko zubi azpian. Xaltxerak talde feminisak antolatuta.

Black Week

■ Azaroaren 24tik abenduaren 1era, Blac Week Arkupeko dendetan.

Bertsio gaua

■ Abenduaren 29an Bertsio Gaua. Izen ematea Etxeluze gaztetxean azaroaren 28an 19:00etan.

Traste zaharrak

■ Abenduaren 13an eta 27an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

AZOKA

Alokairua

■ Gela bat edo biko pisu bat alokatu nahi dut. Aian eta inguruan. Tf: 665076624 -Aziza-.
 ■ Bi lagun ostatu bila. Pisu bat alokatu nahi dugu. Tf: 632420818
 ■ Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia-25metro-, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Komun propioa. Etxeak 50metroko terraza du. Tf: 652551550

Lan eskaintza

■ Emakume baten bila gabiltza, etxeko lanak egin, eta haurrak zaintzeko. Goiz eta arratsaldeko lana izango litzateke, haurrak eskolara eraman, eta eskolatik jaso ahal izateko. Disponibilitatea esker-tuko da. Harremanetara-

ko zenbakia: 606675048

■ Neska euskalduna behar dugu otsailetik aurrera ume bat zaintzeko eta etxeko garbiketa egiteko. Interesatuak deitu 690152796 telefonora.

Lan eskaera

■ Lan bila nabil: garbiketant eta helduen zaintzan. Esperientzia eta kualifikazioa daukat eta Orion bizi naiz. Tf: 671908242 -Felicita-
 ■ Neska euskalduna lan bila, otsailetik aurrera. Tf: 690152796
 ■ Lan bila dabilen neska bat naiz. Helduen zaintzan eta garbiketant esperientzia daukat eta pape-lak ditut. Tf: 663117579
 ■ Emakumea lan bila. Esperientzia du pertsona helduak zaintzen, garbiketant eta besta hainbat

Aia

Azaroak 25

■ Azaroaren 25ean, emakumeengana-ko indarkeriaren kontrako elkarretartzea 12:30ean, plazan.

Erromeriak

■ Azaroaren 26ean Laja eta Larrañaga trikitilariak Aiako Aristerrazuko erro-merian, 18:30etik 21:30tara.

Podologoia

■ Abenduaren 30ean podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

lanetan. Paperak eguneratuta eta gomendioak ditut. Tf: 674123293

Salgai

■ Lokala salgai edo alokagai Pelotari kalean. Tf: 678547840
 ■ Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo 22€, ta-maina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943 132131 edota 634 424 887

Besteak

■ Nextor 2 urteko ar ziki-ratua eta Kleo urtebeteko emea. Biak adopzioan daude. Banatuta adoptatu daitezke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943.83.54.51



ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	2:08 eta 14:28	8:10 eta 20:36	○
02	2:54 eta 15:15	9:58 eta 21:21	○
03	3:38 eta 16:01	9:44 eta 22:06	○
04	4:23 eta 16:47	10:31 eta 22:51	○
05	5:09 eta 17:35	11:19 eta 23:38	○
06	5:56 eta 18:24	12:08 eta ____	○
07	6:46 eta 19:17	0:26 eta 12:59	○
08	7:40 eta 20:15	1:18 eta 13:55	○
09	8:39 eta 21:20	2:14 eta 14:57	○
10	9:47 eta 22:34	3:18 eta 16:05	○
11	11:01 eta 23:49	4:29 eta 17:17	○
12	12:14 eta ____	5:43 eta 18:25	○
13	0:55 eta 13:17	6:50 eta 19:23	○
14	1:49 eta 14:09	7:46 eta 20:10	○
15	2:34 eta 14:52	8:32 eta 20:50	○
16	3:13 eta 15:30	9:12 eta 21:27	○
17	3:48 eta 16:05	9:49 eta 22:02	○
18	4:21 eta 16:39	10:24 eta 22:36	○
19	4:54 eta 17:12	11:00 eta 23:10	○
20	5:26 eta 17:46	11:35 eta 23:45	○
21	6:00 eta 18:20	12:11 eta ____	○
22	6:34 eta 18:56	0:20 eta 12:48	○
23	7:11 eta 19:35	0:58 eta 13:28	○
24	7:52 eta 20:20	1:38 eta 14:12	○
25	8:39 eta 21:14	2:25 eta 15:03	○
26	9:37 eta 22:18	3:20 eta 16:02	○
27	10:45 eta 23:29	4:25 eta 17:08	○
28	11:57 eta ____	5:35 eta 18:14	○
29	0:36 eta 13:03	6:41 eta 19:14	○
30	1:37 eta 14:03	7:42 eta 20:10	○
31	2:31 eta 14:57	8:37 eta 21:01	○

ZAINTZAKO BOTIKAK

ABENDUA:

- Iean, Esparza
- 2an eta 3an, Larrañaga
- 4an, Izpizua
- 5ean, Zulaika
- 6an, Iturria
- 7an eta 8an, Esparza
- 9an eta 10ean, Iturria
- 11n, Lasa
- 12an, Iriarte
- 13an, Esparza
- 14an, Larrañaga
- 15ean, Zulaika
- 16an eta 17an, Gallo
- 18an, Iriarte
- 19an eta 20an, Lasa
- 21ean, Iturria
- 22an, Larrañaga
- 23tik 25era, Etxeberria
- 26tik 29ra, Lasa
- 30ean eta 31n, Zulaika

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilarbtxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz



Zipristin
IMPRIMATEGIA

Ondo pasa San Nikolasak

Ustavila
Otsaila

EGUTEGI PERTSONALIZATUAK



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitate

Kale Nagusia, 2 -behea (20810 Orio)
Telf./Fax: 943 134 717
Mugikorrak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com



SAGARDOTEGIA
SATXOTA

Dastatu gure sagardo BERRIA abenduan
Egin sagardo APURUA Satxota sagardotegian

ABENDUAREN 6tik 20ra
IREKITA

Santia Erreka, 3 · 943 83 57 38

urtarrilaren 12an
buelkan izango gara
denboraldian hasiera emateko



Fontaneria-Fontana

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoak instalazio
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujentzia kendu eta dutxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekorazioak
- Zoru erradiazioak

www.fontaneria-fontana.com

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK

fontana iturgintza
Plaza Endara n°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
661 262 828



IZARRA ELEKTROGAILUAK

BLACK WEEK

Azaroaren 24tik abenduaren 1era

EGUNERO SORPRESA BAT ETORRI ETA IKUSI EZAZU

TIEM 24h
Euzko Gudarri, 44
Telf: 943 83 38 91
20810 Orio (Igorreko)



festetan eskatu gure sagardoa beldurrik pe!!

ABENDUAK IGAN BARRIKOTE AFARIA

deitu eta etorri!!

943 372 691 - 630 777 346

Irekiera urtarrilak 13
Urdaira baserria
20170 Aginaga-Usturbil

URDAIRA

ORIOKO JAIAK 2017

VILLA ANTILLA HOTELAK ABENDUAK
5ETIK 9RA BERTARA ETORTZERA
GONBIDATZEN ZAITU

- Orioko arraun elkarte olinpikoko banderen erakusketa
- Argazki bat arraun elkarte olinpikoaren kamiseta batekin gure fotocall- ean
- Astebete gure **gastropotearekin** Villa Antilla **tabernan**
- **San Nikolas-eko** gure menu bereziaren dastapena



VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO




VILLA ANTILLA
HOTEL & THALASSO

Gabon Zoriontsuak Mendi ibai eta itsas artean

Goza ezazu plater ezberdinez gure sukaldari Christan Lijo-ren eskutik,
gabon zapozet beterik eta ardo berezietz lagunduz

Dj, musika zuzenean eta askoz gehiagorekin

Gabon gaueko menua 65€ + 10% BEZ -a
Gabon zahar menua eta kotilioia 145€ + 10% BEZ-a
Haurren menua 27€ + 10% BEZ -a



Erreserbak 943 89 21 02
reservas@villaantilla.com

Informazio gehiago
nahi izanez gero:

www.villaantilla.com